

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA-2020-IRAILAREN 18A-420.ZENBAKIA

KARKARA



KONTXAKO ESTROPADAK
**BANDERA DA
ORION!**

Zure lanarekin **10. edizioa**

HAZILAN

Murgildu zaitez lan mundura

Prestakuntza doan eta praktikak eskualdeko enpresetan

izen-ematea zabalik
irailaren 23ra arte

Argibide gehiago: 943-89 08 08 • lanpoltsa@urolakosta.eus • www.urolakosta.eus



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA



etorkizuna sortzen
per y para el desarrollo



EUROPA BATASUNA
Europako Gizarte Funtzua sare
etorkizunaren inbertsioa da
UNIÓN EUROPEA
El Fondo Social Europeo
invierte en tu futuro

BIYONA

BERRIKUNTZAK-BARNE DISEINUA

etxea sukaldea
bainugela ...
leihoak etxeko altzariak

eraberritzekotan?



Bisita gaitzazu



Abendaño poligonoa, 2 · ZARAUTZ · ☎ 943-13 50 16 · www.biyona.net



KARKARA 420

2020-IRAILAREN 18A

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA

Aurkibidea

- 5 **Iritzia** Aiora Larrañaga Solaberrieta
Ikasturte hasieran mamua zelatan
- 6 **Hitz tantak** Aiora Larrañaga Solaberrieta
Joxe Martin Errezabal
- 8 **Izpiak eta hizkiak** Josetxo Perez
Hau bai zirkua!
- 10 **Gutunak**
- 12 **Oroimenaren kutxa** Iñaki Iturain
*1970eko arraunaren iraultza.
Orduko garaipenen sekretua*
- 17 **Herrian galdezka**
- 18 **Erreportajea** Iñigo Gaiton
Kontxan ere nagusi izan dira
- 28 **Erreportajea** Aiora Larrañaga Solaberrieta

- Orioko Euskaraldiak badu hamalaukoa*
- 35 **Moila bazterretik** Eli Huegun
Erresilientzia eta superbibentzia
- 36 **Akuilua hartuta** Aratz Madariaga
Berreskura dezagun iparra
- 37 **Nire honetan** Onintza Lete Arrieta
Sena
- 39 **Osasuna** Maider Arrillaga
Oinen zaintzan arreta jarritz
- 41 **Bazkide kluba**
- 42 **Plazan bazan**
- 44 **Zerbitzuak**
- 45 **Agenda**
- 46 **Hasi bertsotan** Olatz Olariaga

KARKARA



Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-83 15 27
karkara@karkara.eus
www.karkara.eus
Lehendakaria
Rikardo Uzkudun

Erredaktoreburua

Aiora Larrañaga
Solaberrieta

Erredaktore taldea

Onintza Aiestaran
Onintza Lete Arrieta
Elizabete Manterola
Iñigo Gaiton
Rikardo Uzkudun

Diseinu arduraduna

Ane Azkue

Publizitatea

Leire Martija

Zenbaki honetako kolaboratzaileak

Iñaki Iturain
Eli Huegun

Aratz Madariaga
Maider Arrillaga

Banatzaileak

Endika Ruiz (Orio)
Manex Dorronsoro (Orio)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Lege Gordailua:

SS-346/90
ISSN: 1132-1105
Tirada: 3.450 ale




Gipuzkoako Foru Aldundia



ORIO



AIAKO
udala



Bidaia eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Ubegun industria guinea, 4 AIA-ORIO

22, 26, 28, 49, 55 eta 60 eserleku dituzten literadun autobusak ditugu.

943-13 28 93 · 656 78 29 99 (Gabino)
Fax-a: 943-89 05 62
alustiza@autocaresalustiza.com



Olaskoegia z/g
AIA-ORIO
943-13 04 38

ANORGA TXIKI, S.L.
KRISTALDEGIA

Oria etorbidea, 4
LASARTE-ORIA

anorgatxiki@gmail.com
www.cristaleriaanorgatxiki.com
943-37 17 33 · 610 45 93 45

- Eraikin komertzialak
- Kristaldura bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutzako manparak eta ispiluak

arkaitz taberna
rio

- EGUNEKO MENUA
- OGITARTEKOAK
- PINTXOAK
- PLATER KONBINATUAK
- KARTA

Ternaza ederrarekin giro ezin hobea

abeslari kalea 6 · 943-83 16 57

edartegia
Antilla
jatetxea

Abeslari kalea, 2
ORIO
943-83 23 09

- Menuak
- Plater konbinatuak
- Errazioak
- Ogitaratekoak

Pelotari, 5 · ORIO
943-83 00 34
autolan13@hotmail.com

AUTO - LAN C. B.



azkue
karrozeriak

Ubegun industrialdea, 7
AIA-ORIO
943-83 51 86

fontana
iturgintza
iturgintza · gasa · berogailuak

Zerbitzu teknikoak
24 ordu

- Komun eta sukaldeen erreforma
- Galdara eta termo elektrikoaren instalazioa
- Ur-jarioak aurkitu eta konpondu
- Bainujontzia kendu eta dutxa jartzea
- Zoru erradiatzailea

Arrantza kalea, 3 · ORIO
fontana-jul@hotmail.es
www.fontaneria-fontana.com
943-53 98 88 · 661 26 28 28

2020-21
IKASTAROAK
Hasiera Irailak 28

+Info : 943894428 / orio@bpxport.es



BODEGAS
Gailur

01307 BANCOS de EBRO
Tel/Fax 943 40 91 58
www.bodegasgailur.com
Arabar Errioxa

ZUDUGARAI

Gabriel Teodoro
BOMBAJEON DE ORLEN

Tel.: 943-83 03 86 · Fax-a: 943-83 59 52
txakolizudugarai@euskalnet.net www.txakolizudugarai.com



Ikasturte hasieran mamua zelatan



AIORA LARRAÑAGA SOLABERRIETA

Iritsi da udan zehar hainbat aldiz aipatutako eskolara buelta, eta ikasturte konplexua izango dela antzeman daiteke, COVID-19tik babesteko kontingentzia plan, protokolo, maskara, musuko, gel hidroalkoholiko edo distantzia sozialaren artean. Udan hainbatetan entzun dugu eskolara bueltak ekarriko zituen arriskuen berri, eta Euskal Herriko zenbait ikastetxe ere itxi dituzte, azken egunetan hainbat kasu positibo atzeman dituztelako. Hain zuzen, osasun arloko zenbait adituk haurrak eskolara itzultzea egokia izango ote zen zalantzan jarri dute udan, kutsatu kopuruak gora egingo duenaren beldurrez. Ez dut ezbaian jarri nahi beren iritzia, kezka mahai gainean jartzea zilegi baita, baina gizarte batek lehentasunak zehaztea ezinbestekoa iruditzen zait; are gehiago, udan hondartza, moila ingurua, arranpla eta terrazak beteta egon direnean, eta, babes neurriak hartuz bada ere, aisialdi jarduera gehienak egin eta batetik bestera ibili ahal izan dugunean. Hau da, oztopoak oztopo, gure aisialdiaz gozatu ahal izan badugu, nola jarriko dugu zalantzan ikasleak aurrez aurreko eskoletara bueltatzeko aukera.

Iraila iristen ari zen heinean, zalantzak eta beldurrak sortu zitzaizkigun gurasooi, konfinamenduaren mamua zelatan, ez genekielako zer gertatuko zen ikasturte berrian eta nola antolatu beharko genuen etxeko martxa. Eusko Jaurlaritzak, gainera, abuztuaren 28an, irakasleak ikasgelara bueltatzeko bi egun eskas falta zirenean, zehaztu zituen 2020-2021 ikasturtean jarraitu beharreko neurriak. Ikastetxeetako zuzendaritza taldeak ordurako lanean ziren, eta buru-belarri martxan jarri ziren uztailean osatu zituzten protokoloak araudi berrira moldatu ahal izateko.

Ikasturteko lehen egunetan, hain zuzen ere, Orioko ikastetxeetako ordezkari banarekin biltzeko aukera izan nuen, eta gauza bat argi geratu zitzaidan: bi eskoletako lan taldeek haurren ongizatea dute helburu uneoro, eta lan handia egiten ari dira hasi berri den ikasturtea ahal den seguruena eta normalena izan dadin. Hala, gurasook kezkatuta egon gaitezke, baina konfiantza izan behar dugu orain arte gure seme-alaben hezkuntzan bidelagun izan ditugun irakasle eta hezitzaileengan ere.

Nik neuk uste dut udaberrian bizi izan genuenak irakasgaia izan behar duela, eta ahal duguna egin behar dugula berriz gertatu ez dadin. Haurren aurrez aurreko hezkuntzak lehentasuna izan behar du, eskolak edukiak ikasteko guneak izateaz gain, sozialetzeko eta pertsona moduan garatzeko espazioak direlako, eta ordenadore pantaila batek ezin duelako ordezkatu eskolak haurrei ematen diena. ■■■

**ORDENAGAILU
PANTAILA BATEK EZIN
DU ORDEZKATU
ESKOLAK HAURREI
EMATEN DIENA**

Joxe Martin Errezabal

TESTUA ETA ARGAZKIA: AIORA LARRAÑAGA SOLABERRIETA

Hogeita hamar urte beteko ditu Joxe Martin Errezabalek (Aia, 1962) Gipuzkoako Foru Aldundiaren ganadutegian lanean. Altzolan egin zituen lehen urratsak, eta gaur egun, baserritarren eta ganaduzaleen artean ikusmina sortzen duten Ibarrola Goikoa testaje zentroko idiskoak zaintzen ditu.

Zer egiten duzue Ibarrola Goikoa testaje zentroan?

Haragi sektoreko arrazak hobetzeko testaje zentroa da Ibarrola Goikoa, eta hona ekartzen dituzte Araba, Bizkai eta Gipuzkoako idiskorik onenak, arraza mantentzeko eta hobetzeko helburuarekin. Dena dela, ez dituzte onartzen ekartzen dituzten idisko guztiak, aukeraketa bat egiten baita: hankak behar bezala ez dituztenak edo izaera txarra dutenak, esaterako, baztertu egiten dira. Onenak aukeratzen dituzte, eta guk zaindu egiten ditugu. Normalean 8-10 hilabete artean dituztenean ekartzen dituzte, eta 14-16 hilabeterekin eramaten dituzte. Egunean bi kilo inguru irabazten dituzte, eta enkantean saltzen direnean idisko ikusgarriak izaten dira.

Horrez gain, hemendik gertu Betizu arraza bizirik mantentzeko haztegia ere badugu. Bi zentroak Gipuzkoako Foru Aldundiarenak dira, eta horietan biltzen den ganadua zaintzea da nire lana.

Enkanteak ere egiten dituzue.

Urtean lau enkante egiten ditugu: urtarrilean, apirilean, uztailan eta urrian. Euskal Herriko eta Espainiako ganaduzaleak eta enpresariak etortzen dira enkantera, batzuk erostera eta beste batzuk zer ganadu dugun ikustera. Dena dela, tristeena udako enkantea izaten da, Espainia hegoaldetik etortzen diren ganaduzaleek ez dituztelako animaliak erosi nahi izaten, bidean beroarekin asko sufritzen dutelako.

Enkanteak egiten direnean hemen izaten gara gu ere, ikusten ez den lana egiten. Izan ere, abereak enkantera atera baino lehen, parte

hartzaileei zerrenda bat pasatzen zaie, salduko diren abereen ezaugarriak zehaztuz, eta zerrendako ordenaren arabera egiten da enkantea. Horregatik, egun horretan abereak manejatzen ibili behar izaten dugu ukuiluetan, dena behar bezala atera dadin. Oraingoz, ez dugu inoiz deskuidurik izan.

Nola sortu zitzaizun testaje zentroan lan egiteko aukera?

Altzola auzokoa naiz jaiotzez. Gaztea nintzenean hainbat lan egin nituen; eraikuntzan ere aritu nintzen, eta, langabezian geratu nintzen batean, kamioiko gidabaimena atera nuen. Segituan, ordea, Altzolan dagoen esnetako behien ganadutegian lana eskaini zidaten, eta garraiolari lana gustatzen ez zitzaidanez, bertan hasi nintzen lanean. Azaroan 30 urte beteko dira Altzolan lan horretan hasi nintzela.

Aurretik ganaduarekin lanean jardundakoa al zinen?

Jaio nintzenetik ezagutzen dut baserriko lana, eta beti gustatu izan zait, gainera. Badira hamar urte, udan hilabete oporrak hartu beharrean, lanaldi erdian bi hilabete egiten ditudala. Batzuei ergelkeria iruditzen zaie, baina nik gustuko dut nire lana, eta inora joan behar ez dudanez, nahiago dut bi hilabetez lasaiago lan egin.

Azken hiru hamarkadetan aurrerapen teknologiko handiak izan dira. Asko aldatu al da zure lana urte horietan guztietan?

Hasiera horretan esku-lana gehiago egiten genuen, eta orain teknologia berriek erraztu egin dituzte hainbat zeregin. Lehen, esaterako, azpiak palarekin garbitzen genituen; orain, ordea, traktore bidez egiten dugu lan bera. Bestetik, ganaduari janaria emateko sistema ere aldatu egin da. Gaur egun, abere bakoitzak txipa duen lepokoa izaten du, eta horren bidez kontrolatzen da jaten duena. Adibidez, behi batek hamar kilo jan behar baditu, sistemak bi kilotik bi kilora ematen dio jaten, dena batera irentsi ez dezan. Ordenadore bidez kontrolatuta dago baserriko lana ere. ■■■



Hau bai zirkua!

ARGAZKIA: JOSETXO PEREZ

TESTUA: IÑIGO GAITON

Mundua zirku nahikoa surrealista bihurtu den ezohiko garaiotan, Gure Zirkuak mundu oso bat sortu du bere baitan. Iker Galartzak eta konpainiak bete-betean asmatu dute sortutako ikuskizunarekin, eta, iaz bezala, azken bi hilabeteotan jendetza pasa da Munto aldameneko berdegunean jarritako karpantik; Joseba Usabiagak KARKARari adierazitakoaren arabera, 14.000 lagun inguru denera. Emanaldi guztietako sarrerak agortu dituzte.

Ez da makala gero; 14.000 lagun atera dira Gure Zirkutik txertoa hartuta. Osasun neurrien, datu nahasgarrien eta albiste kaskarren segidak oraindik luze joko duela eta, farandulako artistek, umil-umil, bizipozari eusteko medizina banatu dute herritarren eta kanpotik etorritako bisitaren artean.

Orioko egonaldia hilaren 13an bukatu ondoren, bide egiten segituko du pailazo musikari, mago, eta trapezisten karabanak. Fantasiari ateari irekiko dizkiote beste herriren batean, kultur ekitaldiak era seguruan egitea posible dela erakutsiz.

Gozategik Gure Zirkuan emandako lehen kontzertuan ateratakoa da argazkia. ■





Adinekoen aurka, komunikaziorik eta ideiarik gabe

CISNEROS VIS

Uda garaian jai egunak iritsi dira, eta gora egin dute gure herri txikian izan ditugun eragozpenek.

Ez da nahikoa ibilgailuak herrigunearen erditik pasatzea eta horiek isurtzen dituzten gasak arnastu behar izatea. Ezta, plaza inguruko lanak itxura gabe luzatzea edo eguneko zentroa ixtea ere. Jai egunetan hornidurarik gabe gelditzen gara.

Gurea baino xumeagoak diren hainbat autonomia erkidegotan oinarrizko produktuak eta elikagaiak saltzen dituzten establezimenduek ezin dute itxi bi egun jarraian. Gu, berriz, bi egun egon gara erosketa egin ezinik. Pakistandarren dendak soilik zeuden irekita. Gainera, eragozpen horri hondartzara joateko Txu-txu trenik ez dugula gehitu behar zaio. Orion herritarrek hondartzara Txu-txu trenean joatea oso arriskutsua dela dirudi, ez ordea Zarautzen. Dena dela, Gure Zirkua — nirea ez— herriko zelairik onena hartu du uda osoan

"KULTUR BERPIZKUNDEAN BESTE URRATS BAT DA GURE ZIRKUA"

zehar, eta neguan, berriz, txakurjabe batzuek bereganatzen dute.

Orain, ezin dugu hondartzara joan, eta zelaia zirkoei okupatzen dituzte. Berriz ere etxean bakartzea falta zaigu! — ez dut azken hilabeteetan bolo-bolo ibili den hitza erabili nahi—.

Ez zen hau ideiez betetako talde gazte batengandik espero genuena. Ideiak loratu baino lehen ximeldu dira. Kofradiari eta inguruko kaleei beste irtenbide bat emango zietela uste genuen, baita ibilgailurik ez duten herritarrek herriko gunetik bestera oinez joateko izaten dituzten arazoei ere.

Gauza bat ikusi dute, galderak egiten dizkieten hainbat medioei ez erantzuten. Irakaskuntza zaharrak gazte berritzaileentzat.

Oharra: Uztailaren 26an jasotako gutuna.

Zaborra lurrean botata

HERRITAR BAT

Pasa den ostiralean Mendibeltz futbol zelaiaren eta Eroskiren arteko plazan gazte mordoxka ari zen meriendatzen, eta horietako talde bat eserlekutik altxatu zen eta beraiek sortutako zaborra lurrean utzita joan ziren. Kargu hartu nien zaborra lurrean botata alde egin behar ote zuten galdetuz, eta horietako batek erantzun zidan jaso behar bazen, beste



Astelehen goizean, sorosleek jaso zituzten hondartzako talaian agertutako hondakinak. **HERRITAR BAT**

norbaitek jasoko zuela. Argazkia atera eta Karkaran jarriko nuela esan nienean, korrika alde egin zuten guztiek, zikinkeria guztia plazan botata utzita.

Oharra: Uztailaren 26an bidalitako gutuna.

Gora Gure Zirkua!

EUSKARAZ BIZIZALEA

Urte batzuk baditugunok komediantek ezagutu genituen Orioko plazan udako gauetan. Circo Americanoa, Rusoa eta Italianoa ere ezagutu ditugu, palotetan. Haien bidez, jakin genuen zer den zirkua magia. Orain Gure Zirkua ezagutu dugu, erriorena eta futbol zelaiaren ondoko belardi ederrean, Mendibeltzen aurrean. Oriotarrok pribilejio

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). **KARKARAK** eskubidea du gutuna laburtzeko. **KARKARAK** ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, **KARKARAK** esan egingo dio.

Argitaratu nahi diren gutunak **KARKARA** bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.eus edo erredakziora eskura ekarri -Orioko edo Alako Kultur Etxean- edo postaz bidali. Kultur etxea, 20810 Orio

hori izan dugu aurten, luxu hori: uda osoan Gure Zirkua gurekin! Horixe izan da pandemia triste honek ekarri digun gauza alai ia bakarra: zirkoak uda osoan herri bakarrean egon behar eta, horretarako, Orio aukeratu izana.

Abuztuko egun batean han izan ginen, eta gozatu ederra hartu genuen. Akrobata, malabarista, kontortsionista, musikari eta pailazoez oso maila ona erakutsi zuten beren lanean, kalitate handia, denek. Energia berezia transmititzen dute. Baina Gure Zirkua, gainera, badu berezitasun bat: historiako lehenengo zirko euskalduna da. Poxpolok-eta euskaratik eta euskaraz eskaini digute beren magia, gure hizkuntzan.

Emanaldiak niri emozio bizia sorrarazi zidan, ETB1-ek 1982an lehenengo transmisioa egin zuenean edo *Euskaldunon Egunkariak* 1990ean plazaratu zenean Donostiako belodromoan ospatu zuen festan sentitu genuenaren antzekoa, herri baten kulturaren berpizkundearen historian aurrera-bidean emandako beste urrats baten lekuko izateak dakarren zirrara.

Horregatik guztiagatik, zoriondu egin nahi ditut, eta eskerrak eman, Gure Zirkua sortu eta horren modu duin, alai eta ederrean gauzatu duzenok. Datorren urteko udak eman diezagula aukera berriz zuekin batera beste arratsalde zoragarri bat pasatzeko, barrez eta umore onez, aurrera-bidean. ■



Gure Zirkuaen karpa eta errio, airetik hartutako argazkian. GURE ZIRKUA

JAI OBERRIAK

- **Julen Telleria Mujika.** Orion, ekainaren 24an.
- **Xanti Rocha Salinas.** Orion, uztailaren 17an.
- **Jannat Imran Yaqoob.** Orion, uztailaren 15ean.
- **Fatima Aleyda Betancourt Galeano.** Orion, uztailaren 18an.
- **Ekhi Mujika Rojo.** Orion, uztailaren 24an.
- **Elorri Gozategi Manterola.** Orion, abuztuaren 17an.
- **Joseba Olasagasti Erasun.** Orion, abuztuaren 27an.
- **Mikel Olasagasti Erasun.** Orion, abuztuaren 27an.

HILDAKOAK

- **Angel Lizaso Urbietia.** Orion, uztailaren 11n. 80 urte.
- **Maria Luisa Arruti Etxeberria.** Orion, uztailaren 30ean. 97 urte.
- **Gabriel Exposito Lapeira.** Orion, abuztuaren 5ean. 83 urte.
- **Jose M^a Agirre Azkue.** Orion, abuztuaren 6an. 81 urte.
- **Irene Agirresarobe.** Orion, abuztuaren 11n. 90 urte.
- **Imanol Ibarguren Renedo.** Orion, abuztuaren 13an. 30 urte.
- **Merche Torre Larrañaga.** Orion, abuztuaren 15ean. 52 urte.
- **Pedro Pikabea Aizpurua.** Orion, abuztuaren 20an. 77 urte.
- **Rafael Manterola Iruretagoiena.** Orion, irailaren 3an. 77 urte.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). **KARKARAK** eskubidea du gutuna laburtzeko, **KARKARAK** ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenez argitaratuko dugu; baina beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, **KARKARAK** esan egingo dio.

Argitaratu nahi diren gutunak **KARKARA** bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.eus edo erredakziora eskura ekarri -Orioko edo Alako Kultur Etxean- edo postaz bidali. Kultur etxea, 20810 Orio

1970eko arraunaren iraultza: orduko garaipenen sekretua



IÑAKI ITURAIN iiturain@gmail.com

ARGAZKIAK: IÑAKI ITURAINEN ARTXIBOA

Mende erdia pasatu da 1970etik; 50 urte, hainbat herritarren iritziz, Oriok izan duen arraun-urte onenetik. Zalantzarik gabe, 1970 urte ona izan zen Orioko arraunarentzat. Zortzikoak Oxford eta Cambridge-i irabazi zien Orioko nazioarteko estropadan. Banyoles-en skiffean eta zortzikoan nagusitu ziren, Espainiako Txapelketan. Traineruak jokatu zituen estropada guztiak irabazi zituen. Kontxako aurreneko jardunaldian 45 segundo kendu zizkion bigarren egin zuen Lasarteri, eta helmuga gaindituta ere arraunean segitu zuten gelditu gabe moilako arranparaino, ikusleak aho zabalik utziz, arraunlariak lehertuta bukatzen zuten garaian. Bigarren iganderako, Portaletako apustuetatik kendu zuten Orio, kolorerik ere ez zelako. Donostiako estropadako zortzi patroietatik lau oriotarrak izan ziren: Altxerri (Orio), Gorriya (Lasarte), Miralles (Zumaia) eta Bixentiko (Donostia). Kontxako estropadaren hurrengo igandean, Oriok, Lasartek, Zuberoak eta Donostiak Getariatik Donostiarainoko itsas zeharkaldia jokatu zuten. Ordura arte sekula ez bezala, ez ziren denak batera abiatu, Donostiako bi igandeetako

bentaja emanda baizik. Orio azkena abiatu zen, Donostia 03:25, Zuberoa 02:10, eta Lasarte 01:35 minutu lehenago aterata. Banan-banan, hirurak harrapatu eta pasatuta irabazi zuen lehia historiko hura. Eta 1970eko urte hartan hasita, sei urtean bost aldiz irabazi zuten Kontxako bandera.

Urte historiko hartan protagonista izandako batzuen abizena duten arraunlariak dabilta aurtengo traineruan ere: Salsamendi, Lizarralde eta Campos. Jon Salsamendi, gizonezkoen oraingo entrenatzailea, urte hartan jaioa da, 1970ean. Jonen aita zena, Jose Antonio, klubaren zuzendaritzako kidea zen orduan. Jon jaio zen egunean bertan egin zuen seme jaioberria klubeko bazkide, elizan bataiatu baino lehenago. Garai hartako patroia Juan Lizarralderen bi iloba, Jon eta Mikel, eta Aritz biloba, traineruko arraunlari dira, eta orduko presidente Antonio Camposen seme Andoni ere bai. Katea ez da eten.

1965ean sortutako arraun olinpikoko klubak ekarri zuen entrenamendurako diziplina eta teknika berriek eta negu osoko jardunak zeharo aldatu zuten traineruen ordura arteko egoera. Geroztik, talde guztiak abiatu ziren oriotarren ildotik. Oriotarren 1970eko erakustaldiak iraultza ekarri zuen euskal arraunketara.

Albert Mainellak 100 urte

Aurten Euskal Herrian bi artista handiren jaiotzaren urteurrenak ospatu ditugu. Ekainean 100 urte bete ziren Xalbador Urepelen sortu zela. Abuztuan 200 urte, Jose Mari Iparragirre Urretxun jaio zela. Orion ere badugu ospakizuna egiteko moduko gizon baten 100. urteurrena, Albert Mainellarena. Gaur egungo oriotar asko izango da gizon hori nor den ez dakiena; baina orain 50 urte, 1970 inguruan Orioko arraun klubean ibilitako arraunlari eta jarraitzaileek ez dute berehalakoan ahaztuko frantses hura.

Albert Mainella prestatzaile fisiko frantsesak oriotarren prestaketa fisikoaren iraultza ekarri zuen. Mainellak 100 urte bete ditu aurtengo martxoaren 11n, bizi bada. Baina nondik nora azaldu zen gizon handi hura Orion? Arraun Olinpikoko Klubaren sorreran parte hartze zuzena izan zuen Emilio Olazabal zarauztar oriozale amorratuak ekarri zuen. Olazabaltarrek burdindegidenda zuten Zarautzen. Han egiten zuen lan Emiliok. Lanetik kanpo, kirola zuen afiziorik handiena, eta zenbait kirolen antolaketa lanetan ekarpen handiak egin zituen. Olazabalek esaten zuen oriotarrek aparteko grina eta sena zutela lehiarako. Emiliori aitarengandik zetorkion oriotarren aldeko



1969ko zortzikoa: Estanis Sarasua, Luxiano Manterola, Juan Altzerri, Jose Manuel Bereziartua, Bixentiko Korta, Patxi Sarasua, Jesus Mari Agote, Jose Ramon Altzerri eta Juan Anjel Lekuona.

zaletasuna, haienzako nolabaiteko miresmena.

Albert Mainellak eliteko atletak entrenatzen zituen Parisen. Oporretan Zarautzera etortzen zen. Olazabalen bidez, 1966an Jose Migel Maiz korrikalari aiarra entrenatzen hasi zen Mainella. Parisera eraman zuen; Maizek hilabete pasatu zuen han, proba klinikoak egin eta hango onenekin entrenatzen. Maiz da Lasarteko nazioarteko krosa irabazi duen korrikalari euskaldun bakarra. Jose Migelen hitzak: "Mainellak esan zidan: hi gauza haiz Lasarten irabazteko, eta sinestu egin nion, konbentzitu egin ninduen. Oso gizon jakintsua zen, asko zekien entrenatzeko moduz". Aiarra 1967an bigarren geratu zen Lasarten, eta 1968an irabazi, Mariano Haroren eta Mexikoko olinpiadan urrezko domina irabazitako bi korrikalariren aurretik: Gammoudi tuneziarra (5.000 metrotan) eta Mamo Wolde etiopiarra (maratoian).

Olazabalek ekarri zuen Oriora

Aiarrak frantsesak entrenatuta izandako arrakastaren ondorioz, Olazabalek Orioko klubera ekarri zuen Mainella. Aurrena, Toki Alai hotelean hartu zuen ostatu; gero, Antonio Campos orduko presidenteak bere etxean hartu zuen. Eta Mainella Orioko arraunlariekin hasi zen lanean. Orduan aldatu ziren Orion elikatze, zaintze eta entrenatzeko moduak eta ohiturak. Orduan hasi ziren arraunlariak lehorrean ere serio entrenatzen, atletak bezala, moilan hesiak jarri eta haien gainera salto eginez korrika ibiltzen, pesak altxatzen... Prestatzailearen berrikuntzak herritarren artean zabaltzeko, aldizkari bat plazaratu zuen klubak, erdaraz. Herriko Cine Leundan herritarrentzako hitzaldi irekia eman zuen. Orduan entzun genituen Orion lehenengo aldiz ariketa aerobiko eta anaerobiko hitzak. Arraunlariak Parisera eraman



Uretara. Atzean, guardia zibil trikordioduna, zaintzen.



Zortzikoa uretan entrenatzen.

zituen mediku kontrola pasatzera. Bordele, Paris, Vichy, Macon..., Mainellarekin



Orioko herria, Mainellak margotutako koadroa. Artezalea ere bazen.

Frantziako leku askotara joan ziren arraunean lehiatzera.

Arraun klubak 1973an plazaratu zuen aldizkaria jo daiteke Orioko aurrenekoztat. Hori ere sekulako aurrerapena izan zen orduan, herriaren historiaren joanean. Honela zioen aldizkari haren editorialak (euskaratuta): "Arropa apalez jantzita, baina ilusio handiz plazaratzen naiz lehenengo aldiz. Kluba osatzen dugunok batzeko asmoa dut, horixe da nire helburua. Ez dakit zenbat aldiz plazaratuko naizen. Hau lehen pausoa da". Horretan geratu zen, zenbaki hark egindako ahaleginean. Ez zuen lan erraza hartu aldizkaria idatzi eta argitaratu zuen lantaldeak. Haren atzean Albert Mainellaren itzala sumatzen da, garbi-barbi.



Mainella entrenatzailea, klubeko presidentea, eta traineruko patroia eta arraunlariak, Francisco Francoren eskutik 1970eko Kontxako bandera jasotzen.

Zortzi orrialdetan gai askoren berri eman zuten: klubaren presidente Antonio Camposen eta Maribi Moreyren ezkontza; Orio 1972ko arraun klub onena izendatu zutela; presidentek klubaren helburuez, ibilbideaz eta zailtasunez idatzitako artikulua; Mainellaren gogoeta kirolak eta entrenamenduak pertsonari dakarkion osasunaz eta bestelako onurez; lau arraunlarik 1972an Mequinenzan izandako auto-istripu larria; Nazioarteko V. Estropadak... Klubaren bazkideentzako bidaia

antolatzeko ideia ere bazekarren, arraunlariekin batera estropadaren batera joateko; Frantzia, Holanda eta Suitza aipatzen ziren.

Plazaratutako aldizkariaren zenbaki bakar hartan, orduko zenbait arraunlariren aipamena agertzen zen: Lekuona, Perona, Itxaspe, Agote, Lanberri, Aranburu; eta, bereziki gogoratzen zituen aurreko urteko istripuan larri zauritutako Jose Ramon Altxerri eta Luciano Manterola. Ale hura ondo gordea du Iñaki Arrillagak; paperean jartzen zuenez, orduan bere bizar luzearekin Che Guevara ematen zuen arraunlari gazteak.

Behin, Juan Luis Amilibia arraunontziguileak bidaia mamitsua egin zuen Albertekin Europan zehar. Biak batera Parisera joan ziren, handik Alemaniara Juan Luisen arreba Gema bisitatzera, gero Suitzara, eta han Stanflish markako skiff bat eskuratu zuten. Enbarkazioa automobilaren gainean jarrita, Banyolesera jo zuten zuzenean, bertan zeuden ordurako kontzentratuta Orioko arraunlariak. Skiffa Jose Luis



1970eko zortziko oriotarra, Oxford eta Cambridgeko ingelesei nagusituta.



Estropada irabazita, Donostiako moilara iristen, 1970ean.



Albert Mainella entrenatzaile herritzailea. Garaipenen lehen sekretua.

Kortari eman, eta hark ontzian entrenamendu bat eginda, Espainiako Txapelketa irabazi zuen.

Mainellak beste mundu bat zabaldu zien Orioko arraunlariei. Gizon hura izan zen Orioko arraunaren urte haietako arrakastaren sekretua. Eta hori dena modu amateurrean egin zuen. Urte batzuk pasatu ondoren, 1976an alde egin zuen Oriotik, beste

bide bat hartuta. Orioko arraunaren giroak eta mailak izugarri galdu zuen entrenatzaile paristarrak herritik alde egin zuenean. Mainella, geroztik, Tunez, Txile eta Venezuelan ibili zen; berak egindako curriculumean jarri zuenaren arabera (Amilibiak helarazia). Azken urteak Portugalen eta Kanarietan eman ditu Denis bikotekidearekin batera.

Gizonkote hura pertsona maitatua izan zen Orioko arraun giroan. Ezagutu zutenek gizon jatortzat daukate. Joan eta gero ere, bisita bat edo beste egin zuen gure herrira. Patxi Sarasuari tarteka eskutitza idazten zion. Azkena 2008ko martxoaren 14an datatua da. Gutunarekin batera, berak margotutako koadro baten argazkia bidali zion, Orioko herriaren koadro bat. Mainellak zioen, orduan 88 urteko gizona, pintatuak zituela hamabi koadro eta haiek saltzeko gogoia zuela, horretarako erakusketa egin nahi zuela, eta apirilean bisitan etorriko zela. Itxura batean bizi-bizirik zegoen, ilusioz gainezka. Baina ez zen etorri. Geroztik Orion inork ez du haren berri zehatzik izan. 2013an, Arraunetxe inauguratzeko ospakizunera gonbidatu nahi izan zuen klubak, eta haren arrastoa egin nahian ibili ziren, batean eta bestean, baina ez zuten lortu. ■



Bigarren sekretua: herritar asko eta askoren parte-hartze zuzena, herri batasuna.

Carmen eta Txomin
ARRAINDEGIAK



TXOMIN ARRAINDEGIA
Eusko Gudarien kalea, 44
943-83 27 47

CARMEN ARRAINDEGIA
Arizaga kalea
943-83 05 37

Gabon
TABERNA

Eusko Gudarien kalea, 7
943-83 06 09

GARMENDIA

Higiezin Agentzia
Aholkularitza
Aseguruak

943-83 44 66 · 688 75 59 48
Ibai Ondo, 1 · ORIO
info@egarmendia.com

Lagundu plastikoak murrizten

1. Zuzenean otarrean sartu produktua
2. Behar baduzu, eskatu eta eraman
etxera gure poltsa berrerabilgarriak
3. Hurrengoan, etxetik ekar ditzakezu poltsak

GOZATEGI
FRUTADENDA



IGLESIAS
SARRAILAGILEAK

iglesiascerrajereros@yahoo.es
www.iglesiascerrajereros.com
Erribera kalea, 14 · ORIO
637 72 33 08

- Ateak irekitzen ditugu
- Sarraila-zilindro aldaketak
- Ateak ixteko malgukien aldaketa
- Komunitateentzako zerbitzua

24orduko
zerbitzua

ITZIAR
KIROLAK

Eusko Gudarien kalea, 23
ORIO
943-83 31 03

Joseba
AROTEGIA · CARPINTERIA

687 683 427
josebaarotza@gmail.com

ATEAK
ZOKALOAK
ARMAIRUAK NEURRIRA
LEIHOAK
ESKAILERAK
AROTEGIA OROKORREAN




Kolon Txiki
edaritegia · jatetxea

Herriko Enparantza 4
ORIO
Tel.: 943-83 00 44



KAİOA

kaioa_denda
www.kaioa.es



kutixi
kafetegia

Aritzaga 9 · ORIO · 943-13 15 17

INDO
TRANSPORTES · FRIGORIFICOS

Garraio frigorifikoa
Nazionala eta Nazioartekoa

generoa
garraioak

Ubegun industriagunea, 4
AIA-ORIO
943-89 4024 · FAX-a: 943-13 01 44




Nola hasi duzu ikasturte berria?



ARANTXA LANDA

Egia esan, nahikoa kezkatuta. Ikastetxean muga asko dituzte ikasleek, osasun neurriak direla eta; uneoro maskara janztea, adibidez, oso gogorra iruditzen zait, eta ikaskideekin distantzia gorde beharra ere bai. Muga horiekin, eskolak ingurune naturala izateari laga dio haurrentzat. Osasun fisikoari dagokionez, arduratzen nau, baina mentalak ere bai, eta ez zait iruditzen protokoloak arlo psikologikoa kontuan hartuz osatu direnik. Egia esan, koherentzia falta ikusten dut eskola barruko neurrien eta eskolaz kanpoko bizimoduaren artean. Hezitzaile modura, kezka eragiten dit lankideekin eta ikasleekin sortu den distantziak. Harremanak hoztu egin direla iruditzen zait. Erronka handia dugu aurrean: batetik, Hezkuntza Sailak ikastetxeen eta zuzendaritzen gain arduera handiegia utzi duelako, eta, bestetik, agindutako baliabideak ez ditugulako jaso oraindik.



PABLO IRISO

Ziurgabetasunarekin, ia guraso gehienek modura. Hezkuntza zentroetan neurri zorrotzak hartu arren, beldur puntua beti dago hor, ikastetxeetan jende asko juntatzen delako. Egunez egun eta astez aste ikusiko dugu egoerak nola eboluzionatzen duen. Zorte pixka batekin, ikasturte osoa era presentzialean egiteko aukera izango dela iruditzen zait. Etxeko txikiei dagokionez, ondo ulertu dute ikastolako dinamika berria, eta gustura hasi dute ikasturtea. Hala ere, azken sei hilabeteetan gurekin ordu asko egin dituztenez, pixka bat kostatu zaie etxeko dinamika haustea. Hezkuntza arloko arduradunek erronka ikaragarria dute aurrean. Kiroldegiko langilea izanik, ikastetxeetarako hartu diren neurriak logikoak ere iruditzen zaizkit, hein batean, biak konparatuz gero. Oso zorrotzak dira, gehiegi ere bai beharbada, baina egoera zaila dugu aurrean, eta kudeatzea ez da batere erraza.



IRATI GONZALEZ DE TXABARRI

Egia esan, eskolara itzulera ona izan da. Udan askotan izan dut ikastetxea gogoan, lehengo ikasturtean bizi izan genuen itxialdiagatik, eta gogoz hasi dut ikasturtea. Aurreneko eguna berezia izan zen. Orokorrean, asko gustatzen zait eskolara joatea, lagunekin egoteko eta asko ikasteko aukera izaten dudalako. Zorionez, osasun neurriekin bada ere, badugu ikaskideekin gozatzeko aukera. Maskara jantzi beharra gogaikarri samarra da, baina, tira, hori jantzita lagunekin jolasteko aukera badugu behintzat... Erabili behar bada, erabiliko dugu eta kito. Nahiago dut eskolan musukoa jantzita ibili, aurreko ikasturtean bezala etxean konfinatuta egon baino. Gehien kezkatzen nauena hori da, berriro itxialdia ezartzea. Etxean sartuta egotea gogorra da, aspergarria, ezin delako kalean bezala jolastu, lagunekin gozatu eta eskolak ondo hartu. ■■■



Kontxan ere nagusi izan dira

Bikaina izan da uda Orio Arraunketa Elkarteko emakumezkoen traineruarentzat. Lehengo igandean Donostian erakustaldia emanda, bigarren Kontxako Bandera lortu zuen taldeak; elkartearen garaipen zerrendan, hogeita hamalagarrena.

Testua: **Iñigo Gaiton**. Galeriak
argazki batzuk: **Joxe Mari
Olasagati eta Iban Egiguren**.

Emakumezkoen trainerua, Kontxako
Bandera jaso berrian. ARNAITZ RUBIO APREA

Proiektu hau gora egiteko asmoarekin hasi genuen, eta, orain, goi mailara iritsi garela ikusita, mantentzea da erronka". Itziar Olasagastik adierazpen horiek egin zizkion telebistari, Kontxako Bandera irabazi eta lehorreratu berrian. Ez du erronka makala izango Orioko emakumezkoen traineruak aurrerantzean. Iaz bezala, aurten ere nabarmen gailendu dira denboraldiko estropada gehienetan, eta kirolarien artean balio



gehien duten bi txapelketak aldearekin irabazi dituzte: Euskotren Liga eta Kontxako Bandera.

Donostiako badian urte guztiko lana kondentsatzen omen da. Martxel Aldai arraunlari aiarrak hala azaldu zuen lehen igandea jokatu ostean. Bada, emakumezkoen kasuan, Kontxako Estropadetan gertatzen den hiperbolizazio hori kontutan hartuta, bigarren igandeko garaipenak primeran azaltzen du taldeak erakutsi duen nagusitasuna. Arraunean ikaragarri eginda irabazi zuten bandera preziatua neskek.

Santi Zabaletaren gidaritzapean, taldeak urteak egin ditu arraunketa luze eta sendoa fintzen, eta azken bi denboraldietan erakutsi dutenez, primeran barneratuta dute. Horren froga garbia da lehengo igandean gertatutakoa: 2,22 segundoko aldeari buelta

eman behar ziola jakinik, Donostiarra bizi-bizi atera zen, eta lehengo bizpahiru minutuetan segundo bateko alde atera zion Oriori. Burua hotz eta konfiantza galdu gabe, Orioko tripulazioak bere arraunketari eutsi zion, lasai eta seguru. Minutuek aurrera egin ahala, eroso irabazi zuten estropada, gozatua hartuta, Nadeth Agirrerren ahotsean arraunlarien izenak banaka entzun eta gero.

Lehiakor eta irregular

Gizonezkoen traineruarentzat, berriz, denboraldia ez da nahi bezain ona izan. Iazko arrakastaren lurrina oraindik airean izanik, eta antzeko taldea mantentzen zutela kontuan hartuz, estropalariak trapuak astintzen ikusteko esperantza zegoen zaleen artean. Aurrera jarraitu aurretik, taldea goran ibili dela azpimarratu behar da, lehiakor, onenekin borrokan, baina bandera bakarra irabazi dute gaurdaino. Zenbakiak hotzak dira, eta sarritan ez dute islatzen talde batek uretan emandako errendimendua, baina onerako edo txarrerako, pisu handia dute.

Kontxari dagokionez, lehen igandea eta gero, Jon Salsamendi entrenatzaileak berak aitortu zuen estropada ez zitzaiela espero bezain ondo atera, eta bandera irabazteko lehiatik urruti bukatu zuten. Hala ere, ohorezko txandan sartzea lortuta, hirugarren izan ziren bigarren igandean, itzulerako luzean ondo etorrita.

Orioko gizonezkoen txalupari lehiakor ibiltzea eskatu behar zaiola esan izan da betidanik. Horregatik bada, behintzat, aurtengoak ez du inongo aitzakaririk. Gainera, harrobiko estropalari dezente izan

**BIGARREN
JARDUNALDIA GOZO
AMAITU ZUTEN
NESKEK,
NAGUSITASUNEZ**



Ikaragarri egin dute arraunean aurten neskek. EUSKOTREN LIGA

dira txalupan, eta berriek ere egin dute debuta.

Kamiseta horiak —eta maskarak— soinean

Koronabirusa dela eta, Kontxa ezohiko moduan bizi izan da aurten. Hala eta guztiz ere, modu batera edo bestera, betiko ospakizunak debekatuta egon arren, ez da izan egun arrunta herrian.

Bigarren igandea argitzerako txaranga bueltaka zebilen kalean. Segidan, zaleak zubira

hurreratu ziren estropalarien autobusei buila egin eta animoak ematera. Egunean zehar, kamiseta horiak —eta maskarak— ez ziren armairuetan geratu, eta hori kolorea ikusi zen batean eta bestean.

Bandera irabazitakoan, neskek ezin izan zioten garaipena herritarrekin ospatzeko gogoari eutsi, eta kalejira laburra egin zuten biba eta txalo artean. Estropalari eta zaleez gain, ertzainak ere ospakizunean izan ziren. Ez da halakorik askotan ikusi.

Hemendik urte batzuetara, historikoak izango dira aurtengo denboraldiak utzitako irudi pandemikoak.

Urte zaila kudeaketa gaietarako

Iosu Esnaolak aurreneko denboraldia egin du Orio Arraunketa Elkarteko presidente modura. Ez zaio estraineko urte erraza tokatu. “Presidente batentzat, urte guztiak izango dira intentsuak ziurrenik, baina koronabirusak zaildu egin du aurtengoa”, azaldu du. Protokolo eta burokrasia artean beteta ibili da, lanak ahalik eta txukunen egin nahian. “Donostiako estropadan parte hartu ahal izateko paper-kontuek, adibidez, denbora asko eskatu dute aurten. Osasun krisiaren ondorioz, kezka iturri gehiago izan ditugu”. Egoerak hala behartuta, egunez egun joan behar izan dute erabakiak hartzen, eta horietako asko, ezohikoak izan dira, behin ere hartu gabeak.

Esnaolaren esanetan, traineru denboraldiak udaberrian zuen itxura kontutan hartuz gero, arraun munduan ezin dute kexarik izan: “Itxialdian egoera oso zaila bizi izan zuen gizarteak, eta orduko talaiaitik, udak ez zuen itxura onik. Zorionez, bulegoko lan asko egin eta gero, denboraldia egitea lortu da”.

Koronabirusaren mehatxua gainean sentitu du presidenteak uneoro. “Elkarteko entrenatzaileraren bat telefonora deika nuela ikustean, arraunlariren baten positiboaren berri emateko deitzen zidala pentsatzen nuen. Ideia hori ezin izan dut burutik kendu. Zorionez, ez da halakorik gertatu, eta estropada guztiak jokatzeko aukera izan dugu”.

Elkartean babestuta sentitu da Esnaola, eta hitz onak izan ditu Arraunetxeko lantaldearentzat. “Senior taldeetako hiru

"Lanean jarraituko dugu talde eder honek jarraipena izan dezan"**ITXASO AZKONBIETA** ORIO ARRAUNKETA ELKARTEKO ARRAUNLARIA**Nola definituko zenuke arraun denboraldia?**

Hasteko, azpimarratu behar da arraunlari guztiok azken hilabeteetan pribilegiatuak izan garela. Gizartea momentu benetan gogorak ari da bizitzen, eta guk estropadak jokatzeko aukera izan dugu.

Taldeari dagokionez, bikaina izan da emandako errendimendua. Udaberrian uretako entrenamenduen hiru hilabete galdu arren, teknika oso onarekin egin dugu arraunean. Balorazioa oso positiboa da.

Zein izan da taldearen indargune nagusia?

EUSKOTREN LIGA

"Blokea"-ri eutsi izana.

Elkarrekiko konfiantza handia dugu estropalariok, ondo ezagutzen dugu elkar kirolari modura. Taldea indartsu egon da psikologikoki.

Eta ahulgunea?

Erritmo altuetan arraun egitean antsietatea kontrolatzea kosta izan zaigu, paladak presarekin bukatuz.

Arantzaren bat geratu al zaizue sartuta?

Lau estropada genituen begiz jota: Oriokoa, Zarauzkoa, Euskadiko Txapelketa eta Kontxa. Bada, Donostiarrak irabazi zituen Oriokoa eta Euskadikoa. Min handia egin zigun bi bandera horiek ez irabazteak.

Arraunlari modura, zer helburu dituzu aurrera begira?

Fisikoki hobetzen jarraitzea, taldea gehiago indartzeko. Gero, nirekin egin duten modura, datozenei bidea irekitzen jarraitu nahi dut, talde eder honek jarraipena izan dezan.

"Lehiakorrak izan arren, ez dugu nahi adina asmatu"**ANDONI CAMPOS** ORIO ARRAUNKETA ELKARTEKO ARRAUNLARIA

EUSKO LABEL LIGA

Azkenetan da traineru denboraldia. Zer ahozapora laga dizu orain artekoak?

Taldeak lehiakorra dela erakutsi du hainbat estropadatan, baina ez dira esperotako emaitzak lortu.

Ezeri aitzakiarik jarri gabe, zorte pixka bat ere falta izan zaigula esango nuke banderaren bat edo beste gehiago irabazteko. Seinalatutako estropadetan ez gara garaile izan, hainbat faktore tarteko; urtea arraro samarra ere izan da, eta bigarren txandatik estropada dezente irabazi dituzte, inori meriturik kendu gabe.

Zergatik gertatu da hori?

Besteak beste, estropadak atzeratu direlako tarteka. Horren ondorioz, igandeetan batez ere, hirugarren txanda jokatzeko haizea harrotu izan

da. Neskak beranduago hasteak, edo txanden artean telebistako iragarkiak sartzeak, kasu, zuzenean eragiten dio atzerapen horri.

Hala ere, Hondarribiaren kasuan adibidez, bigarren txandan irabazi dituzten estropadetan maila ikaragarria eman dute. Ez zaio inori ezer kendu behar.

Zure errendimenduari dagokionez, gustura al zaude aurten eman duzunarekin?

Niretzat, aurreneko taldeko partaide izate hutsa ohorea da, txikitatik amestu izan dudan zerbait. Eta gustura nago, bai, aurten emandakoarekin. Aurrera begira, hazten eta ikasten jarraitzeko amorratzen nago.



Gizonezkoek harrobiko 9 estropalarekin irabazi zuten Getxoko bandera. EUSKO

LABEL LIGA

ETXEKO JENDEAREKIN LAN EGITEA DA ORIO ARRAUNKETA ELKARTEAREN APUSTUA

entrenatzaileek asko erraztu didate lana. Gaztetxoekin ibiltzen direnek ere bai; zehaztasun eta seriotasun handiarekin bete dituzte denek segurtasun neurriak eta protokoloak”.

Babesle nagusirik gabe

Babyautoren babesletza bukatu ostean, Orioko traineruek ez dute babesle nagusirik izan aurtan, baina urtea salbatzea lortu dute. “Babesle handi baten faltan, bospasei txikiagoekin lortu dugu

urtea egitea”, dio presidenteak. Herriko negozio txikien ekarpena ere nabarmendu du: “Harrituta nago jende batek egiten duen ahaleginarekin. Denok ezagutzen dugu herriko denda edo taberna batzuen egoera zaila, eta, hala ere, ahal duten diru kopuru handienarekin laguntzen dute elkarteak. Ikaragarria da haien guztien elkartasuna”.

Marka edo enpresa handien babesletza lortzea lan zaila izaten da beti, baina, gaur-gaurkoz, are zailagoa. “ADEGI saria jasotzen izan ginen astelehenean emakumezkoen taldearekin, eta hango arduradunekin hitz egiteko aukera izan genuen. Enpresen jabeak udazkenak ekar dezakeenaren beldurrez daude, eta normala den bezala, zuhurrago ari dira jokatzeko babesletza kontuetan”, adierazi du Esnaolak, zuzendaritzan gaia lantzen jarraituko dutela nabarmenduz.

Urte oso ona elkartearentzat

Emaitzei erreparatuz gero, denboraldia oso ona dela iritzi dio elkarteko presidenteak. “Ez dut hitzik emakumezkoek lortutakoa azaltzeko. Gauza bat da irabaztea, eta bestea gainontzekoei horrela gailentzea. Nagusi izan dira uda osoan”, dio pozarren.

Gizonezkoen denboraldia ere ontzat eman du, uretan izan den maila kontuan hartuz. “Goian ibili dira mutilak, eta ia estropada oro atera dira banderak irabazteko aukerekin. Beharbada, azkenengoetan ez dira espero bezain ondo ibili”. B txalupak lortutakoari ere garrantzia handia eman dio. “Angel Larrañagak lortutakoa txapela kentzeko modukoa da. Tripulazio oso gaztearekin egin du denboraldia, eta KAE 1 ligan mantendu izanak meritu ikaragarria du. Oso ona da elkartearentzat”, azaldu du baikor.

Aurrera begira, aurreko zuzendaritzak markatutako norabideari eutsi nahi dio Esnaolak. “Etxeko jendearekin lan egitea da gure apustua, gazteei aukera emanez. Hala ere, ez diogu uko egingo kanpotik ekarritako hiruzpalau goi mailako arraunlari izateari, horrek lehiakortasuna bermatuko badigu, eta gazteentzat ere eredu ona badira”.

"Denboraldia jokatzeko hutsa lorpena izan da arraun munduarentzat"

IBON GAZTAÑAZPI KAZETARIA

Ibon Gaztañazpiren arabera, arrauna erreferende bihurtu da uda garaian, eta gero eta jarraitzaile gehiago ditu. Estropadak lehen lerroan jarraitzen dituela aprobetxatuz, denboraldiari errepasoa eman dio elkarriketari.

Zer nabarmenduko zenuke ahoz denboraldiaz?

Aurreneko gauza, aurreikusitako estropada guztiak jokatu direla. Gizartea nola dagoen kontutan hartuz, arraun munduaren lorpen handia izan da denboraldia egin izana. Udaberrian lan asko egin zuten zuzendaritzek, ligak, telebistak eta, batez ere, arraunlariek. Horren fruituak jaso dira udan. Nire ustez, arrauna erreferente bihurtu da; sekula baino garbiago ikusi da hori azken bi hilabeteotan.

Eta kirol esparruan?

Emakumezkoen dagokionez, Orio gainontzekoen gainetik egon da. Gero, koska bat beherago, Donostiarra, eta beherago besteak. Desberdintasun horrek erakusten du emakumezkoen arrauna egiten eta egituratzen ari den kirola dela oraindik ere.

Gizonezkoen kasuan, historiako denboraldirik berdinduena izan da abuztu erdialdera arte. Ikaragarria izan da sei traineruk banderak irabazteko izandako lehia. Horrek hausnarketarako bide izan behar duela iruditzen zait, arraunaren etorkizunari forma



IÑIGO GAITON

ematen jaoteko. Aurrerantzean banderen borrokan traineru gehiago ibiliko badira, kale-zozketek eta halako kanpoko faktoreek sekula baino eragin handiagoa izango dute emaitzetan; arraun munduak erabaki beharko du horrela izatea nahi den, edo zerbait aldatzeko garaia iritsi den.

Tripulazioek uretan ohi baino dezente gutxiago entrenatu zuten udaberrian, osasun larrialdiaren ondorioz.

Atzeman al da?

Denborak ez dira beste urtetan baino askoz txarragoak izan. Egia esan, errekorrik ere ez da egon. Ikaragarritzko markarik egin ez arren, taldeek markatu dituzten denborak errespetagarriak izan dira, lehiakorak. Talde askok iaztik egin zuen "blokea", eta, ziurrenik, horrek eragina izan du.

Zer iruditu zaizu etxeko traineruen errendimendua?

Emakumezkoak nagusi izan dira. Datuak eta emaitzak aztertu besterik ez dago horretaz jabetzeko. Kontxako bigarren igandean egin zuten estropada da denboraldia zer izan den azaltzeko laginik onena.

Gizonezkoen kasuan, aurreko 6 traineru ibili dira ligako goiko postuetan, eta Orio horietako bat izan da. Lorpen handia da hori elkartearentzat. Lehiakor ibili izanagatik, ordea, iaz baino estropada gutxiago irabazi dira. Iazko urtea ikaragarri ona izan zen, eta, zoritxarrez, horrek pisu handia du aurtengoren pertzepzioan. Beharbada, Hondarribiak eta Zierbenak urratsa eman dute aurrera azken asteetan, eta oriotarrei hori falta izan zaie.

Hala ere, gauza onak ere badira; betiko Orio berreskuratzen ari garela iruditzen zait. Getxon, adibidez, harrobiko bederatzi mutilekin irabazi zen, eta hori hor geratzen da. Gainera, gazte gehiago ere ibili dira traineruan: Altxerri, Aiestaran, Orrotegi...

Estropadak publikorik gabe jokatu direnez, atzeman al duzue gorakadarak telebistako audientzian?

Bai, batez ere Zarauzko estropadatik aurrera. Ez sinesteko zenbakiak izan dira. Konparatze aldera, ideia bat egiteko, eskupilota finaletik gorako audientzia izatera iritsi gara. ■■■





"Eraginkortasunez eta naturaltasunez komunikatzeko gaitasuna ematen diegu ikasleei"

MIKEL ITURBE ORIO HIZKUNTZAK ESKOLAKO ZUZENDARIA ETA IRAKASLEA

2010 urtean irekitako Orio Hizkuntzak hizkuntz-eskolako zuzendari eta irakaslea da, eta ordutik herriko hainbat belaunalditako famili osoak pasa dira bere gela eta eskuetatik, beren bizitzetan behar izango duten atzerriko hizkuntz trebetasuna lortzeko.

Zergatik sortu zen Orio Hizkuntzak?

Orio Hizkuntzak sortu zen kalitatezko prestakuntza emateko arrazoizko prezioetan eta ikaslearengan eta haren beharretan oinarritutako prestakuntza emateko; alegia, komunikazio eta ulermen beharrak eta premia akademikoak asetzeko.

Eta bete al dira helburu horiek hamar urte hauetan?

Zalantzarik gabe. Kalitate handiko prestakuntza ematen dugu hizkuntzetan, gure ikasleei eraginkortasunez eta naturaltasunez komunikatzeko aukera ematen diena, baita Cambridgeko azterketen bidez lortutako maila ziurtatzeko ere.

Zer abantaila ditu Cambridgeko Ziurtagiri bat lortzeak?

Askotarikoak eta desberdinak dira, ikasleak bezala. Adibidez, ikasle batzuek unibertsitatara, master batera edo Erasmusera sartzeko behar dute; langile batzuek beren curriculuma hobetu nahi dute edo beren lana sustatu; irakasle eta funtzionarioek zerrendetan



duten posizioa hobetu; eta gurasoek, beren seme-alabei helburuak edo lorpenak ezarri.

Nahitaezkoa al da azterketak egitea ?

Ez. Gure ikastetxean hala nahi duten ikasleei aholkuak ematen dizkiegu, baina erabakia beraiena da. Guk esaten diegu gure ustez une egokia den ala ez, eta probetarako prestatzen laguntzen diegu. Erabakia beti ikasleena da, eta ez du haien ibilbide akademikoa baldintzatzen.

Zein da hizkuntza batekin hasteko adin egokiena?

Haurrei buruz ari bazara, dagoeneko 4 urtetik aurrera Clip Clap English eskaintzen dugu, haurrei egokitutako metodologia, haurrentzako eskola-frankizia ezagun batek erabiltzen duen metodologiaren egileak eta arimak sortua. Lehen Hezkuntzan hasten diren haur

asko ere baditugu, baita nerabeak eta helduak ere. Inoiz ez da berandu hizkuntza batekin hasteko!

"Heldua naiz eta ez naiz gogoratzen zenbat aldiz hasi naizen ingelesa ikasten..."

...eta hilabete gutxira utzi duzu, motibaziorik gabe. Ikasleak banaka tratatu behar dira, beren beharrak kontuan hartuta ibilbide akademiko pertsonalizatua eginez, eta metodologia eraginkorra eta atsegina erabili behar da. Gainera, ikasleak ikusi behar du aurrera egiten duela, bere helburuak lortzen dituela.

Hamar urte eta hainbat istorio kontatzeko.

Bai, hala da! Bada bat bereziki gogoratzen dudana. Gure lehen urtean, seme batentzat ingeles eskolak nahi zituen aita bat etorri zen eskolara; ordutegi-koadrante batekin zetorren,

haurraren jarduera guztiekin, eta ordutegi eta egun oso zehatzak eskatzen zizkidan, ezin zitezkeenak. Esan genionean ezin genituela egokitu bere semeari maila eta adinarean arabera legozkiokeen taldeak, haserre agertu zen. Lasaitu egin nuen, aulki batean eseri eta ariketa bat proposatu nion: egunkari bat atera nuen, lan-eskaintzen orria ireki, eta eskatu nion errotuladore batekin azpimarratzeko hizkuntzak jakitea ezinbestekoa zuten eskaintza guztiak. Ia guztiak azpimarratu zituen, eta, amaitu zuenean, eskatu nion beste errotuladore batekin azpimarratzeko kirolak, musika, pintura... aipatzen zituzten eskaintza guztiak. Ez zuen kendu errotulagailuaren tapoia, eta konturatu zen, etorkizunean, semearen onerako izango zela hizkuntzak lehenestea.

Eta matrikulatu al zen?

Ez ikasturte hartan, baina gero bai.

Orioko zentrotik kanpo ere eskolak ematen dituzue.

Bai, enpresentzako eta erakundeentzako eskolak ematen ditugu. Aurreko ikasturtean Lanbide Heziketako hiru ikasle talde prestatu genituen Erasmuserako eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusirako eskolak eman genituen. Sare Publikoko irakasleentzako hizkuntza-ikastaroak eta irakaskuntza-tekniken ikastaroak ere eman ditugu, Prest Gara programaren bidez. Sare publikoko eskoletan ere eskolaz kanpoko klaseak ematen ditugu eguerdietan.

Irakasleei prestakuntza emateko ondo prestatuta egon behar da, ezta?

Bai. Gure oinarritzko prestakuntza unibertsitate ikasketak dira, eta hizkuntzek

osagai oso handia dute.

Gainera, RSA/Celta ziurtagiria dugu, Cambridgeko irakasleen prestakuntzaren standard bat. Gainera, gure eguneraketa etengabea da. Gutako batzuk ahozko proben aztertzaileak gara, eta horrek urtero ikastaroak egitera eta azterketa bat gainditzera behartzen gaitu. Filologoa izatea edo natiboa izatea ez da nahikoa. Bederatzi urte dira Cambridge Exams Preparation Centre ofiziala bihurtu ginela.

Aztertzailea aztertuta. Zer gertatzen zaio ez badu bere proba gainditzen ?

Bi urtez kanpoan geratuko dela. Aztertzaileak, lan esperientzia zabala eta prestakuntza egokia erakustez gain, aztertu ahal izateko behar diren trebetasunak izan behar ditu. Eta, gainera, bere ikasleen gainditutako en ratioa altua izatea. ■

Ingeles orokorra
Cambridgeko azterketak
Errefortzua

Talde
Txikietan

Umeak
Gazteak
Helduak
Enpresak

Larunbatetan
FIRST eta
ADVANCED

Clip-Clap
4 urterekin
hasita



ORIO HIZKUNTZAK

📍 Ibaiondo, 8 behea - ORIO · 📞 668 85 88 26

🌐 www.oriohizkuntzak.com · ✉ info@oriohizkuntzak.com



Orioko Euskaraldia badu hamalaukoa

Testua eta argazkiak: **Aiora Larrañaga Solaberrieta.**

Azaroaren 20tik abenduaren 4ra egingo da aurtan, bigarrenez, Euskaraldia, eta hainbat berrikuntza izango ditu. Izan ere, aurtan, norbanako bezala (*ahobizi* edo *belarriprest* izanez) parte hartzeko aukeraz gain, taldean egiteko aukera ere egongo da *arigune*-en bidez. Hau da, enpresetan, erakundeetan eta elkarteetan euskaraz aritzeko guneak sortzea da helburu nagusia aurtan.

Orion, esaterako, hainbat merkataria, ostalari eta eragilek osatu dute Euskaraldia babesten eta sostengatzen duen hamalaukoa. Uztailean egin zuten aurkezpen ekitaldia Orioko zimitorio berrian.

Entitateek izena emateko epea irailaren 27an bukatuko da, eta urritik aurrera irekiko dute norbabakoak inskribatzeko aukera. Antolatzaileek jakin badakite koronabirusak sortutako krisia dela eta, ziurgabetasun garaian murgilduta dagoela gizartea, eta horrek kezka sortzen dietela eragileei izena ematerakoan. Dena dela, ez dute entitateak horretaz arduratzerik nahi, lanketa egiteko aukera Euskaraldia hasi arte izango baitute parte hartzaileek.

Musika Eskola kultur eragilea da, eta gure egunerokoan hizkuntza berdintasuna bermatzeko erantzukizun soziala dugula sentitzen dugu. Horregatik erabaki dugu Euskaraldian parte hartzea. Gainera, hizkuntza praktika berriak lortzen lagundu dezakeela uste dugu. Danbolin Musika Eskolan euskara da

harremanetarako hizkuntza ikasleekin, baita gurasoekin ere. Zorionez, ez diogu lanketa berezirik eskaini behar euskaraz hitz egiteari, hizkuntza nagusia euskara baita arlo eta gai guztietan.

DANBOLIN MUSIKA ESKOLA



Ni Sevillan [Andaluzia, Espainia] jaio nintzen, eta duela hamar urte iritsi nintzen Euskal Herrira. Euskara ikasteko ahalegina egin dut, eta gaur egun norbaitek nire hizkuntza zein den galdetzen didanean, euskara dela erantzuten diot. Hala, garrantzitsua iruditzen zait euskararen erabilera sustatzeko ekimenak sortzea, eta, horregatik, erabaki nuen Euskaraldian parte hartzea. Izan ere, ostalaritza arloan euskaraz hitz egitea garrantzitsua dela



iruditzen zait. Hasieran, Donostian bizi nintzen eta Oriola lanera etorri nintzenean euskaraz

ez nekienez, kosta egiten zitzaidan tabernara etortzen ziren adinekoekin komunikatzea. Hitz gutxi batzuk ikasi nituen, eta lau hilabete pasa nituen bezero batekin egunero elkarrizketa bera izaten. Orduan ohartu nintzen euskara jakitea oso garrantzitsua zela, eta pixkanaka ikasten joan naiz. Lagunek eta bikoteak asko lagundu didate ahalegin horretan.

ERRUSTA TABERNA



Ekimen polita iruditzen zaigu Euskaraldia, gure hizkuntza ohiturak aldatzeko. Gehiegi jarduten dugu erdaraz, eta neroni naiz hori egiten dudana lehena. Horregatik, garrantzitsua iruditzen zait gure hizkuntza bultzatzeko neurriak hartzea. Guk dendan, esaterako, barazki, fruta eta produktuen izenak euskaraz jartzen ditugu. Beti ez dugu

asmatzen, baina ahalegina egiten dugu. Dena dela, ez da erosle guztien gustuko neurria. Batzuk esaten digute euskaraz eta gaztelaniaz jarri beharko genituzkeela, baina iruditzen zait hori eginez gero erdarazko hitzak erabiltzen jarraituko genukeela.

GOZATEGI FRUTA DENDA

Gure hizkuntza presente mantentzeagatik, gizartean aho eta belarrietan mantentzeagatik, beti edozer egiteko prest izaten gara. Hemen beti erabiltzen dugu euskara, hasi jartzen dugun musikatik, segi eskaintzen dugun kartara, eta hartzen



ditugun langile guztietaraino. Hori da gure ama hizkuntza, eta Euskaraldian ere, eskatzen zaiguna egingo dugu gustura asko.

KOLON TXIKI TABERNA

Guretzat Euskaraldiari eta euskarari bultzada ematea oso-oso garrantzitsua da, gure identitatea delako eta gure esku dagoelako gure identitate hori bultzatzea. Zuk indarrak non jarri, horixe aterako da, eta guk betidanik nahi izan dugu zerbitzu euskalduna eman. Ez da erraza ostalaritzan, baina saiatu gara ahal den gehiena bertako jendearekin osatzen taldea, gure arteko hizkuntza euskara izan dadin, jatoriasun batean eta etxe giroan lan egiteko, eta lortu dugu. Zerbitzari extraren bat kenduta,



denak euskaldunak dira. Hamabost lankide baldin baditugu, bik soilik ez dakite euskaraz, eta guretzat

garrantzitsua da euskal giro hori mantentzea. Komunikazioan ere, beti guztia bi hizkuntzetan jartzen dugu. Ematen dugun zerbitzuari dagokionez, iruditzen zait garrantzitsua dela gure lehen hitza euskaraz izatea, ez soilik bertako bezeroak goxatzeko, baizik baita turistek ikus dezaten bere hizkuntza propioa duen herrialde batera datozela. Argi daukagu: guk zerbitzu euskalduna eman nahi dugu.

KATXIÑA UPATEGIA

Kutixin lan egiten dugun guztiak euskaldunak gara eta ingurua euskalduna dugu. Horregatik, lehen hitza euskaraz egiten saiatzen gara beti kafetegian, nahiz eta ez dakienarekin gaztelaniaz hitz egiten dugun. Dena dela, uste dut ostalariok eta merkatariok badugula zer hobetua arlo horretan. Ahalegindu beharko genuke euskararen presentzia

handitzen gure establezimenduetan. Izan ere, bezeroei zuzendutako oharrak erdaraz idazteko ohitura izaten dugu, horrela herritar guztiek ulertuko dutela pentsatuta. Batzuetan euskaraz modu zuzenean idazten ez dakigulako ere hartzen dugu erabakia. Keinu txikiekin urrats garrantzitsuak egin ditzakegu euskara sustatzeko.



KUTIXI KAFETEGIA



Euskaraz hitz egiteko ohitura hartzea izango dugu helburu, eta, nahiz eta zailtasunak izan, beldurrik gabe hitz egitera animatu nahiko nituzke herritarrak. Arigunea sortu dugu farmazian, eta bertan saiakera egite hutsa oso positibotzat

hartuko dugu. Guztion eskuetan dago euskararen erabilera indartzea, eta intentzioa jartzen badugu herri euskaldunago bat eraiki ahal izango dugu.

LASA FARMAZIA

Gizartean esparru askotan nahiz eta euskaraz jakin gaztelaniara jotzeko joera dago. Euskaraldiarekin joera horiek apurtu eta jarrera aldaketa bat eragin dezakegu. Izan ere, Euskaraldiak balio digu hainbat arrazoirengatik euskaraz hitz egiten ez duten pertsonekin euskaraz

harremantzeko. Niri esaterako, Euskaraldiak balio dit euskaraz hitz egiteko prest dauden bezeroak identifikatu eta hortik aurrera harremanak euskaraz izateko.

LIBE GARMENDIA DIETISTA
NUTRIZIONISTA



Orio Arraunketa Elkartearen euskaraz ari gara lanean. Gure

ontzietako estrapuen hariak elkar josten ari gara mende mende. Euskararen hari gara eta ari gara. Zuzendaritza bilera denak euskaraz astelehen gauero. Arraunlariekin eta entrenatzaileekin euskaraz. Orio arrauna da eta arrauna euskara da. Guk euskaraz jaso dugu arrauna, eta euskaraz eman nahi diegu ondorengoei. Ezin da bestela izan. Euskaraz joan ginen balearen bila *patroi banarekin*, euskaraz *Manuel Olaizola eta*

Loidirekin, Uranga Atxaga ta Manterolarekin. Eta halaxe segi nahi dugu arraunean euskaraz izen berriekin; Nadeth Agirre eta Zabaletarekin, Gorka Aranberri ta Salsamendirekin, Jon Lizarralde eta Larrañagarekin, Olasagasti eta Piñeiotarrekin, Valenciaga eta Davidenkorekin, Salvagno, Arruti eta Ayestaranekin... Hari gara eta ari gara!

ORIO ARRAUNKETA ELKARTEA

Gu egunero gaude Euskaraldian. Herritarrak euskalduntzeko eskolak ematen ditugu, baina ez da nahikoa. Horregatik, uste dugu euskararen erabilera sustatzeko kanpaina guztiak direla garrantzitsuak, eta guk beti hartuko dugu parte horrelako ekimenetan. Gainera, Euskaraldiak euskararen aldeko aldarria plazaratzen du, eta



balio digu ikusteko zenbat jendek bat egiten duen helburu horrekin. Askotan pentsatzen dugu gutxi garela euskararen alde lan egin nahi dugunak, baina ingurukoak ere horretarako prest daudela ikusteak, aurrera jarraitzeko indarra ematen digu.

ORIOKO AEK



Udaletik gogoz bultzatuko dugu aurtengo Euskaraldia, herriko beste talde eta elkarteekin batera. Udalarai euskararen erabilera sustatzea dagokio, legez, eta lan hori elkarlanean egin nahi dugu herriko

elkarteekin. Euskaraldia aukera bikaina da erabileran eragiteko, eta gogotik baliatuko dugu denok batera.

ORIOKO UDALA



%100 etxean egina
PIZZERIA
KALETA

Arrantzale kalea, 10 943-24 89 46

Lizaso
Dekorazioa



Eusko Gudari, 48 · ORIO · 943-83 07 84
itzilizaso@gmail.com



Katu
Horia

albaritaritza klinika

ESTROPALARZ, 10
20810 ORIO
tel. 943 11 66 99

OFFICIALIAK
668891129



MARIJO

ILEAPAINDEGIA
Eusko Gudari, 8 beheko · ORIO
943-13 47 29



KORTABERRI
arotz lanak

Imanol Illarramendi
Aia (Gipuzkoa)

kortaberri.arotza@hotmail.com 665 70 33 47

MENDIZABAL
AROTZEGIA

Neurriko armairuak eta egurlanak

Altzerri bidea, Beti-Alai etxea · AIA-ORIO
943-83 11 75 · 645 70 84 91
mendi@arotzgi.net

libe
dietetika
elikadura aholkularitza

Eusko gudariak, 35 · ORIO
(sarrera Arrantzale kaleatik)

943-53 64 94
697 23 86 56
libegarmendia@gmail.com
www.libegarmendia.com



narau
school & translations



www.narau-school.com

Eusko Gudari 29 - ORIO
943-83 11 16
648 97 64 70
info@narau-school.com



niko
taberna

Karta
Pintxo tradizionalak
Okindegia



Palota Kalea, 5 · 20810 Orio · Egin erreserba 943-53 61 27

Zarautz

Hileta Zerbitzuak
1962. urtetik zure zerbitzura

24 ordu zure zerbitzura
Beilatokia · Lekualdatzeak ·
Eginbide guztien tramitazioa

Araba kalea 35 · ZARAUTZ
943-89 49 37
info@zarautzhiletazerbitzuak.eus




Salatxo abesbatzarentzat garrantzitsua da Euskaraldian parte hartzea, sinesten dugulako euskara gure hizkuntza dela eta hori sustatzeko ahalegina egin behar dugula. Salatxo abesbatzan euskara da gure

eguneroko hizkuntza; euskaraz hitz egiten dugu, eta euskaraz zabaltzen ditugu gure mezuak.

BEATRIZ ALTUNA, SALATXO ABESBATZA



Iruditzen zaigu oso garrantzitsua dela Orion euskara zaintzea, eta merkatariorok urrats garrantzitsuak egin ditzakegu arlo horretan, euskara erabiltzea sustatzeko. Donostiara joaten direnean esaterako, denda batera sartu eta lehen hitza erdaraz egiten dute euskaldun askok, gaztelaniaz hitz egiteko ohitura handiagoa dagoelako hiriburuan. Komertzioetako arduradunek agurra euskaraz egiten badute berriz, herritarrek badakite euskaraz hitz egin dezaketela.



Horregatik, guk euskarari garrantzia eman diogu beti. Gure menuan nahiz sare sozialetan euskara izaten da

erabiltzen dugun lehen hizkuntza, eta The Passera etortzen diren bezeroei ere euskaraz hitz egiten diegu. Uste dugu erabiltzaileek eskertzen dutela keinua. Gu donostiarrak gara, eta ohartu gara Orion gaudenetik euskara gehiago erabiltzeko ohitura hartu dugula. Orain nonbaitera joaten garenean euskaraz gehiago egiten dugu naturaltasunez.

THE PASS



Xaltxerak:

Euskaratik eta euskaraz militatzen dugun talde feminista izanik ariguneen kontzeptuak gurekin bat egiten duela ikusten dugu. Norbanako hitzunez gain, kolektiboak hartzen ditu kontuan aurtan Euskaraldiak, eta feminismoak, euskarak bezala, kolektibotasun horri eusteko beharra du. Ezin baitugu ulertu

hiztun bat talderik gabe, ezta ere jardun feminista bat talderik eta hizkuntzarik gabe. Elkar-zaintza beharrezkoa dugu pertsonok, baita euskarak ere, euskararen zaintza presente izateak lagunduko digu hizkuntza-ohiturak aldatzen.

Batukada:

Euskaraz aritzen gara kantuak ikasterakoan, gure arteko harremanetan, baita kantuan aritzen garenean ere. Gurera etortzen denak euskaraz egingo duelako eta euskaraz egingo diogulako.

Gaztetxea:

Arduratuta gaude. Kalean geroz eta euskara gutxiago entzuten denaren sentsazioa daukagu.

Gaur egun bizi garen gizarte aurreratu honetan, ez zaigu agian gure hizkuntza komunikaziorako tresna garrantzitsua iruditzen, baina hala da. Horixe bera transmititu nahiko genieke euskalduntze prozesuan daudenei eta baita euskaldun zaharrei ere. Horretarako, egoki ikusten dugu Euskaraldiaren jarduna eta aurtengoan, ariguneen dinamikarekin, pauso bat aurrera egingo delakoan gaude eta euskararen erabilera areagotzea espero dugu. Ea denon artean euskara bizi-bizi mantentzea lortzen dugun, gure hizkuntza eta gure altxorra baita.

XALTXERAK, ETXELUZE GAZTETXEA
ETA BATUKADA TALDEA

OINARRI PODOLOGIA ZENTROA



Arrantzale kalea, 63 behea
ORIO
943-57 53 61
oinarri@podologia-oinarri.com
www.podologia-oinarri.com

PAKO IMAZ

pertsianak

PERTSIANAK
aluminioa
motorrak
automatismoak
konponketak

600 70 52 27 · 943-13 29 01
pakoimaz@hotmail.com · ORIO

Orioko Herri Ikastola
Herri Onurako Kooperatiba



Abeslari kalea, 8
943-83 47 04
Fax-a: 943-13 09 38
orio@ikastola.eus
www.oriokoikastola.eus

Hemengo haragia.
Etxeo produktua: tripaki, odolki,
txekorra, txorizo, kroketak...

**KARATEGIA
PATXI
OLIDEN
URDAITEGIA**



Eusko Gudari, 25 · 943-83 00 10

Oreka
fisioterapia



Eusko Gudari, 54 · 943-13 35 37

Ekografia muskulo-eskeletikoa
Eskuzko terapia · Talka-uhinak
Masaje terapeutikoa · Osteopatia

Portu
Erreteta - Jateketa



Kazolitat, baserriko oilaskoa,
parillako errekiak, eguneko menua...

Santio Erreka auzoa, z/g · AIA
943-89 44 34

Ttipi
Eusko Gudarien, 15
ORIO
943-25 96 95



ttapa

Sagasti
LEIHOAK



Tel.: 943-13 00 77 · Fax 943-53 71 50
sagasti@sagastileihoak.com
Eusko Gudari, 7
20810 Orio

Kalitazteko materialak
PVC eta aluminioa · Isolamendu termiko eta akustikoa
Salmenta osteko zerbitzua

Roberto Sagasti

www.sagastileihoak.com

SU KIA
TABERNA · JATEXEA



Eguneko menua
Asteburuetakoa
Oilaskoak eramateko
Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Terraza ederra
(alboan umeentzako parkea)

Abaromendi 38, behea 1
ORIO · 943-89 21 29

BODEGON
Sarasua



info@bodegonsarasua.es | Erreserbak: 943-83 00 05

Zaragueta IPI
HERRI ESKOLA 2-16



943-89 40 52
012137aa@hezkuntza.net

Erresilientzia eta superbibentzia



ELI HUEGUN

Zer den ba urte berria hastea aurrekoa noiz amaitu den oso garbi eduki gabe. Bai, irakurle, amaitu da uda, hasia da denboraldi berria, edozeren, guztiaren, denboraldi berria. Ez dakiguna da noiz arte iraungo duen. Edo noiz arte iraungo duen bere horretan, iraungo badu behintzat.

Nola hasi berriz aurrekoarekin amaitu ez bada? Nola itzultzen da sekula joan ez dena? Nora itzultzen da sekula joan ez dena?

Ez da erraza erantzuten. Pandemiak pertsona adina bizipen utzi dizkigu azken hilabeteetan eta, beraz, aldeztu aurretik diot ez esatekorik balego, mesedez, barkazioa emateko.

Lanerako bueltaren lehenengo astea amaitu berri dut eta itxialdiko hilabete bat baino luze eta astunagoa egin zait. Aspaldiko urteetan lehenengo aldiz ari naiz sentitzen iraileko aldapa, aurrean daukazunarekiko bertigo eta nagikeria hori. Ez daukat oso garbi noiz bukatu zen aurreko ikasturtea eta horrela, oso arraroa egiten zait datorrenari ekitea. Berria izango da guztia, baina aurrekoaren segida modura baino ezin dut bizi.

Datorkiguna aurreikusten saiatzeak neke mentala eragiten dit. Ziurrenik ez dakigulako bi aste barru gure bizitza nora zabaldu ahal izango dugun. Eta hori pentsatuaz igaro ditut azken asteak. Ez da eteterik egon, jarraipen bat soilik. Zirkulu konstantean indarrak kargatzea zail samarra, ezta?

Azkenaldi honetan, pare bat kontzeptu etorri zaizkit pentsamendura hainbatetan. Erresilientzia da lehenengoa. Orduko pisukide batek horri buruz egin zuen Gradu Amaierako Lana, eta orduan entzun nuen nik lehen aldiz (nik dakidala). Pertsona batek zailtasun egoera batera egokitzeko daukan gaitasuna dela esan daiteke. Zergatik ez dakit, baina ikastea gehien gustatu zaidan hitz horietako bat da.

Bigarren kontzeptua kontingentzia modura bizirik irautea da, superbibentzia, ezer gertatzea zerbait gertatzea baita.

Zalantzatan nago kausalitatea ote den eta ez kasualitatea kontzeptuok gogoratu izana. Bizirik diraugunok modu berriak asimilatu beharko ditugulako behin eta berriz eta ahalik eta azkarren. Erresiliente izatea komeni, irakurle, ez bizirauteko, bizirik jarraitzeko baizik. ■■■

**DATORKIGUNA
AURREIKUSTEN
SAIATZEAK
NEKE MENTALA
ERAGITEN DIT**



Berreskura dezagun iparra

Ate joka dugu udazkena. Gurean euri gehien egiten duen urtaroa omen da. Lurrak usain berri ugari eskaintzen dizkigu; basora sartu, eta arnasketa bakoitzak elikatzen gaituen sentsazioaz goza dezakegu. Hilabete luzez soinean izan, baina jadanik behar ez dituzten hostoei erortzen utziko diete zuhaitzek, lurrari kendutakoa, lurrari bueltatuaz. Hain maitatuak ditugun perretxikoek ez diete urteroko zitari hutsik egingo eta, fruituak ere, noski, ugariak izango dira. Etorkizuna ziurtatuko dute horiek, eta bide batez, hainbat animalariari negu gogorra pasatzen lagunduko. Jakintsua da natura. Ziklo baten amaiera eta beste baten hasiera. Hartuemana. Naturaren magia.

Guk, ordea, aspaldi galdu genuen honekin sintonia. Gidatzen gintuen iparorratza ere bidean erori zitzaigun antza, eta bizitzaren benetako koordenadak irakurtzeari utzi genion. Baina, ezin esan noraezean gabiltzanik. Zoritzarrez, ondo seinaleztatua dugu maldan beheara eta frenurik gabe amildegira garamatzan bidetxurra. Eta, bide honetan, parada miresgarritzat saldu digute hurrengo hilabeteetan %100eko funtzionamenduan izango dugun erraustegia. Negu gehiegi igarotzen lagunduko ez digun udazkeneko fruitu pozoitsua. Ziklo baten amaiera eta beste baten hasiera. Hartuemana. Gizakion magia.

Asko dira zaborraren errausketak ingurumen zein bizidunongan eragiten dituen

kalte larriak frogatzen dituzten ikerketa eta esperientziak. Filtroek eutsi ezinezko furano, dioxina zein bestelako metal astunak igortzen ditu atmosferara, eta horiek minbizi-sortzaile gisa aitortuak ditu Osasunaren Mundu Erakundeak. Eusko Jaurlaritzak berak igorritako azterlan batek aitortzen zuen eragina 15 kilometroko erradioan ematen dela. Eredu horren barruan, 201 hezkuntza zentro ditugu, eta milaka gara gure bizitokia bertan dugunak. Kaltetuak izango zaizkigu elikagai eta animaliak ere. Maiatzean bertan ehunka arrain hilda agertu ziren Zubietako erraustegitik beheara doan Arkaitzerrekan, erraustegiaren funtzionamendua oraindik partziala izan arren. Gertakari hura ezkutatzen saiatu ziren,

HAUXE BAI JENEROA!



NIRE HONETAN



ONINTZA LETE ARRIETA

baina beraien arduradunen zoritxarrerako, argitara atera zen azkenik. Esan beharrik ez dago erreka horri darion ura Oria ibaian barreiatzen dela.

Europak, 2021etik aurrera erraustegi gehiago eraikitzea debekatzen duen legediaren aldeko apustua egin du, horien ondorio kaltegarriez jabetu ostean. Debekuaren arriskuaren aurrean, juxtu-juxtu iritsi dira gure zenbait agintari eta enpresa kriminal euren negozio partikularra irekitzera. Paradojiko eta, latsa aztarranik gabe, Ingurumen Zentroa izenpetu dute, belarriei kalte gehiegi ez egiteko neurri gisa. Errefusa bidez elikatzen da teoriar, baina bertan amaitzen duten hondakin gehienak birziklagarriak dira. Gipuzkoako herri batzuk

aspaldian hasi ziren ardura kolektibo eta kudeaketa jasangarri baterako bidea egiten. Aiako eta Orioko datuek, berriz, praktika kaltegarri horren babesle garela ohartarazten digute. 2019ko erregistroen arabera, bi herrietan bizi garenon arteko batezbestekoari erreparatu badiogu, biztanleko 242 kilo hondakin bideratu genuen errefusara. Usurbilen, biztanleko 67 kilo, edota Arrasaten, 98 kilo bideratu ziren bitartean.

Gure eskuetan dago praktika hori elikatzen jarraitu edota arduraz eta errespetuz jokatzeko. Egin dezagun barne lanketa, eta atera dezagun behar diren kontuetan herri nortasuna. Birzikla dezagun kontzientzia, berreskura dezagun iparra eta zaindu gaitezen elkar. ■■■

Sena

Nerabetan, beti esaten nuen inoiz ez nuela umerik edukiko. Unibertsitatea amaitu, eta berdin. Gero, 25 urterekin B. ezagutu nuen, eta hamarkada bat geroago bikien ama naiz. Eta ez nituzke ezerगतik aldatuko, ezta umeen truke prometitzen diguten *askatasun* horregatik ere. B.ren teoria da, emeok segurtasuna aurkitzen dugunean ama izateko gogoa sentitzen dugula.

Umerik nahi ez izateaz gain, urteak pasa nituen esanez haurrak izaten banituen, inoiz ez nituela aiton-amonak *behartuko* zainketa lanetara. Moldatuko nintzela neu bakarrik. Osorik irentsi beharreko hitzak, amak gurean igarotzen dituelako bizpahiru egun astero-astero. Badakit nagusiki gugatik egiten duela, eta pixkatxo bat bereगतik. Baina horrez guztiaz gain, eta B.ren teoriei jarraiki, akordatu naiz behin Burgosko Giza Eboluzioaren Museoan entzundakoaz. Antza, familiako haurrak zaintzeko eboluzioak berak sortu ditu amamak, eta horregatik joaten zaigu hilerokoa adin batetik aurrera gizaki emeoi.

Senak ekarri gaitu honaino, eta espero dut senak aginduko didala gure ama zaintzea berak ni eta nire ondorengoak zaindu dituen bezala. ■■■





GAZKIDE EGIN NAHI DUZU?
Deitu telefono zenbaki honetara
943-83 53 98
MENUAK EMATEN DIRA

Herriko Plaza, 1



IZARRA ELEKTROGAILUAK

Eskaintzak beti zurekin!



Eusko Gudari, 44 · 20810 Orio (Gipuzkoa)
izarraelectrodomesticos@gmail.com



Seguros Bilbao Santi Barranco
Orioko Ordezkarria

Endaia Enparantza, 1 · ORIO · sbarranco@segurosbilbao.com
943-11 16 00 · 688 71 48 69



URANGA
burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

Eusko Gudari, 5 · ORIO · 943-83 12 36

ZINKU ERAIKUNTZAK

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzaren erreformak
- Teilatuak
- Sukalde, komunak, etb.
- Eraisketak

deitu eta eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Ander Zinkunegi
667 74 02 79



Sinergia
fisioterapia eta ikerkuntza

Ibai ondo, 1 beheka · ORIO
943-13 05 77 · 685 71 85 95
sinerfiafisioterapia.com

- **Lesioak:** bihurdurak, tendinitisiak, zainfirituak, kontrakturak, hanka handituak, artrosia, kirurgia osteko birgaitzea, bizkar hezurreko arazoak, arnas gaixotasunak haur eta helduetan, lesio neurologikoak, haurdunaldirako tratamendu bereziak, erditze ondorengo errekupeazioa.
- **Tratamenduak:** terapia manuala, osteopatia, masajeak, drainatze linfatikoa, arnas fisioterapia, kinesioping-a, pilates, abdominaletako gimnasia hipopresiboa (GAH), REDCORD.



EGIGUREN
Argazki Estudioa



IBAN EGIGUREN
Egiguren argazki eta bideo estudioa
egigurenargazkiak.com
egigurenargazkiak@gmail.com
607 54 27 63
943-03 04 25

Oinen zaintzan arreta jarritz



TESTUA: MAIDER ARRILLAGA

Askotan ahaztu egiten gara oinez, zapatetan babestuta eta ezkutatuta izaten ditugulako. Gehienetan min ematen digutenean konturatzen gara hor ditugula, baina gorputzeko gainontzeko atalak bezala, zaindu egin behar dira.

Udaberrian egin genuen konfinamenduan, esaterako, jende asko oin-hutsik edo etxeko zapatilak jantzita ibili zen denbora luzez. Gehienok ez gara sekula orduan bezainbeste denbora etxean sartuta egon. Etxeko zapatilek normalean ez dute kalte larrikeria eragiten, eguneroko bizitzan gutxi ibiltzen garelako horiekin; hau da, ez ditugulako kilometroak egiten horiek jantzita. Itxialdian, ordea, ordu asko pasa ditugu etxeko oinetakoekin, eta bigunak eta zapalak izateaz gain, atzekalde irekia izaten dutenez, ondorioak eragin dituzte oinetan. Izan ere, oinetako horiek ez dute behar den bezala babesten oinek jasaten duten inpaktua, eta askori faszitisak eta orpoan espolioak sortu zaizkie.

Konfinamenduaren ondoren, berriz, oina presiorik gabe izatetik, zapata itxiak erabiltzera pasa ginen, eta jende askok deitu zidan kailuek

min ematen ziotela edo azkazala haragian sartu zitzaiola esanez. Gauza bera gertatzen da uda sasoia amaitutakoan, sandalia janzteari utzi eta zapata itxia erabiltzen hasten garenean ere.

Udako oinetakoen artean ezagunenak badira ere, txankletak eta atzekalde irekita duten oinetakoak ez dira betere gomendagarriak, oinaren aurrekaldeko gihar multzoak lan bikoitza egin behar izaten duelako horiek jantzita ditugunean. Horrez gain, normalean plastikozkoak edo gomazkoak izaten dira, oso lauak dira eta oinak esfortzu handia egin behar izaten du. Gainera, Orion hondartza herritik kilometro eta erdira dugu. Txankletak jantzita bizikletaz joan eta malekoian lau pauso egiten baditugu, ez da ezer gertatzen, baina herritik hondartzara oinez joaten bagara, oinek sufritu egiten dute. Horregatik, saiatu behar dugu udan oina ondo eusten duten oinetako irekiak

**EZ DA BATERE ONA
ZAPATA ITXIAK
GALTZERDIRIK GABE
ERABILTZEA**

erabiltzen, eta oinaren arkuan forma eta zola lodia badute, oraindik eta hobe; bestela, mailu erako behatzak, tendinitisak, faszitisak edo espolioak sortzen direlako.

Oinak zaintzeko gomendioak

- Oina ondo eusten duten eta zola lodia eta gogorra duten oinetakoak erabili behar dira.
- Azkazalak zuzen moztu behar dira, horrela haragian sartzea ekidin baitezakegu.
- Dutzatu ondoren oso garrantzitsua da oinak eta behatz tartak ondo lehortzea, onddoak sortu ez daitezen. Horregatik, gomendatzen dugu behatzak ile-lehorgailuarekin lehortzea.
- Ez da batere ona zapata itxiak galtzerdirik gabe erabiltzea. Oinak izerditu egiten du eta galtzerdiak hori xurgatzen du. Galtzerdiak garbitzera egunero botatzen ditugu, baina galtzerdirik ez badugu izerdia oinetakoan gelditzen da, eta onddoak sortzen dira zapatetan.
- Igerilekuan edo aldagela publikoetan ahal den heinean ez da oin-hutsik ibili behar eta, kasu horietan, txankletak erabiltzea gomendatzen da, papilomarik ez harrapatzeko. Haurren kasuan, esaterako, oso erosoak dira neoprenozko galtzerdiak. ■



Denontzat Hizkuntza Eskola, Orion

- Tituludun eta esperientziadun irakasleekin
- Zure helburuetara egokitzen diren ikastaroekin
- Eta zure ikasketen laguntzeko gogo handiarekin



NARAU
Hizkuntza
Eskolan...

- Bost urtetik aurrerako haurrentzako eskolak ditugu. Baita gazte eta helduenzat ere.
- Ingelesa, frantsesa, alemana, japoniera eta gaztelera erakusten ditugu.
- Gure taldeak txikiak dira.
- Zure beharretara egokitutako banakako ikastaroak ere eskaintzen ditugu.
- Oporraldietan ikastaro trinkoak ere baditugu.
- Enprekin eta erakundeekin lan egiten dugu.
- Azterketa Ofizialak prestatzen lagunduko dizugu.

MATRIKULAZIO
EPEA IREKITA DAGO
2020-2021
IKASTAROA

📍 Eusko Gudari 29
ORIO

☎ 943-83 11 16

📞 648 97 64 70

✉ info@narau-school.com

www.narau-school.com
Ikastaroaren hasiera 2020ko
irailaren 14an izango da

We prepare for

Cambridge

English Qualifications

Informa zaitez!



GURE IZAERA
KULTURA
HIZKUNTZA LEHENA.

GEUREA LEHENA.



Egin zaitez KARKARA laguntzaile

Zergatik KARKARA laguntzaile?

- Nire herriaz kalitatezko eta gertuko informazioa jasotzen jarraitu nahi dudalako. Hilero nire etxean eta uneoro **karkara.eus**-en.
 - Euskaraz bizi nahi dudalako eta euskararen biziberritzea bultzatu nahi dudalako.
 - **KARKARA**laguntzailearen abantailez gozatu nahi dudalako.
- KARKARA**laguntzaile izateko deitu **688 85 96 82** zenbakira edo idatzi **karkara@karkara.eus** helbidera. Urteko kuota: 36 euro.

HILABETEKO ZOKKETAREN IRABAZLEA:

Mahala saskia - Arraunketa
Elkartearen eskutik



Patricia Cowie

Hil honetako
KARKARAlaguntzaile
zozketak:



**Xabier Etxeberriaren
"Txoria nintzela"**
Liburua

PARTE HARTZEKO:

Deitu 688 85 96 82 zenbakira edo idatzi **karkara@karkara.eus** helbidera. Parte hartzeko epea gaurtik irailaren 25eko eguerdiko 12:00ak arte. Irabazlearen izena KARKARAko hurrengo zenbakian argitaratuko da. KARKARAlaguntzaile eta KARKARAlaguntzaile berrientzat bakarrik.



Irudi engainariak

Hamar zati hauetatik erdiak irudi handitik hartuta daude eta beste erdiak engainariak dira, hau da, oso antzekoak izan arren, ez datoz bat irudi nagusiarekin. Identifika itzazu.



Bilatu

Bada gauzatxo bat irudian, inolaz ere agertu beharko ez lukeena, garai hartan asmatu gabea zelako. Zein ote da?

G		T	I		E
			P		T
O		I		P	
			E		
		P			
I	O	E	G		P

Sudokua

Konturatuko zinenez, orriotako jolas guztiek Antzinako Egipton daude girotuta. Osa ezazu sudokua EGIPTO hitzak dituen hizkiekin (E, G, I, P, T eta O). Gogoratu letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

Pertsonaia honen eta irudi nagusiko bere bikiaren artean dauden

aldeak aurkitu behar dituzu. Hamabi dira guztira.


11+1



							
A	B	C	D	E	F	G	H
							
I	J	K	L	M	N	O	
							
P	Q	R	S	T	U		
							
V	W	X	Y	Z			

Mezua

Alfabetoari erreparatu,
asmatu zer dioen
papiroak.




Handitik txikira

Ordena itzazu katuok, handienetik (1) txikienera (5)



Labirintoa

Aurki ezazu momiaren
sarkofagora iristeko
bidea, gezi beltzetik
abiatuta.



Marraztu

Horra! Momia gaixoa erdizka
marraztuta dago.
Osa ezazu, mesedez.



Margotu



Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

IRAGARKI SAILKATUAK

ALOKAIRUA

Logela alokagai. Etxebizitza berria eta logela handia, ohe handiarekin, mahaiarekin eta armairuarekin. Etxeak 30 metroko terraza du. Tel.: 652 55 15 50.

Garaje ibxia alokagai. 25 metro karratu ditu, eta sarbidea Palota kaletik. Kokapen oso ona, Niko tabernaren parean. Prezioa: 110 euro hilean. Informazio gehiago: 661 87 88 76.

LAN BILA

Ume zaintzan lan egiteko prest dagoen neska oriotarra naiz. Tel.: 676 44 13 27.

Emakume gazte bat lan bila. Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko prest eta baita garbiketa lanetarako ere. Berehala lanean hasteko moduan. Tel.: 642 69 60 38.

Emakume venezuelar bat bere zerbitzuak eskaintzeko prest. Jende helduarekin ospitalean egoteko prest, egunez eta gauzez. Tel.: 688 61 04 52

Lan bila nabil, etxe garbiketarako egiteko prest. Tel.: 641 44 60 70.

Lan bila nabil etxe garbiketarako eta haurrak zein helduak zaintzeko. Orduka lan egiteko. Tel.: 643 66 23 89.

Etxeko lanak egiteko edo zaintzan lan egiteko prest nago. Tel.: 631 82 44 52.

Neska arduratsua lan bila dabil. Barneko zein kanpoko lanegile bezala adineko pertsonak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest. Karlene. Tel.: 631 87 86 59.

Lan bila dabilen emakumea naiz. Bikaina naiz haurrak zaintzen, eta garrantzi handia ematen diot garbitasunari eta txukuntasunari. Arduratsua naiz, eta arreta handia jartzen dut nire lanean. Berehala lanean hasteko prest nago. Tel.: 602 08 98 86.

Etxeko eta zaintza lanak egiteko prest nago. Esperientzia dut eta arduratsua naiz. Lanerako gogoz nago. Wendy. Tel.: 612 46 42 43.

Lan bila nabilen neska bat naiz. Haurrak edo adineko pertsonak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest nago. Barneko zein kanpoko lanegile bezala, edo orduka. Esperientzia eta erreferentziak ditut. Samanta. Tel.: 643 85 78 54.

Neska euskalduna naiz eta lan bila nabil. Udararen umeak zaintzeko eta etxeko lanetan laguntzeko prest nago. Arduratsua naiz eta oso alai, eta umeekin esperientzia ere badauket. Berehala lanean hasteko moduan naiz. Harremanetarako kontaktua: 656 73 51 03

Orion astelheenetik ostiralera haurrak (6-12 urte) zaintzeko bere burua eskaintzen du 17 urteko gazte arduratsuak. Ekainaren 1etik aurrera hasteko aukera. Uztailaren 15a arte. Orduetgia: 9-13h (hurreko/

eguneko 10€). Aukera ere bazkaltzen emateko, 9-15h (hurreko-eguneko 15€). Gehienez 3 hurrez osatutako taldea. Julen. Tel.: 688 62 45 73.

Orion, batxilergoko lehen urtea amaitu berri duen gazteak bere burua eskaintzen du klase partikularak emateko, bai ikasturte amaierari begira, baita udarako errefortzu gisa. 9-12 urte bitarte. Ekainaren 1ean hasteko aukera. Orduko 8€. Julen. Tel.: 688 62 45 73.

Aiako 17 urteko neska, Orioko baita Aiako umeak zaintzeko prest, ordutegi malguarekin. Haurrekin esperientzia duena. Saioa. Tel.: 672 19 49 94.

LAN ESKAINTZA

Langile baten bila gabiltza pertsona heldu baten zaintza eta etxeko lanak egiteko. Derrigorrezkoa da gidatzeko baimena eta paperak edukitzea. Tel.: 656 73 55 19.

ETXE BILA

Familia bat gara. Hiru gela dituen etxe baten bila gabiltza. Tel.: 661 33 11 13.

Neska oriotar bat etxera alokatu nahian. Tel.: 677 28 95 21.

SALGAI

Olaciregi txipironera salgai. Suzuki DFIS motorra. Abendura arte aseguru ordaindua du. 3.500 euro. Tel.: 657 77 45 11.

Volkswagen California T-5 salgai. Tel.: 670 42 09 66.

BESTELAKOAK

Land Rover Defenderra erosi nahiko nuke, berdin du zer egoeratan dagoen: iTVa pasa gabe, kolpeekin, aberiatuta.... Tel.: 623 17 95 37.

Garaje ibxi bat erosi nahiko nuke kotxe bat sartzeko tokiarekin. Herri erdialdean edo goiko kalean. Tel.: 666 18 41 69.

Portugesezko ahoko mintza praktika hartu nahiko nuke ingelesaren edo euskararen truke. Tel.: 691 34 48 56.

Orion bizi den familia bat autokontsumorako baratze ekologiko bat egiteko lurzoru baten bila dabil alokairuan Orion edo inguruan. Tel.: 657 71 96 14.

Bigarren eskuko mountain bike bizikleta erosiko nuke. Interesatuek, idatzi edo deitu KARKARAra.

Duela bi aste belarritakoa galdu nuen Ibai Ondo auzotik anbulatoriara bidean. Mesedez, norbaitek bilatzen badu, deitu hurrengo telefonora: 943-83 18 75. Juani.

Surf taula beltz bat galdu nuen Orioko Surf Taldearen lokalaren inguruan. Taula beltz kolorekoa da, eta ertzak kolore bizikoak ditu. Inork bilatu edo hartu badu, eskertuko nioke telefono honetara deitzea: 615 78 42 12. Aitor.

ITSASOA

Eguna	Itsasgora	Itsasbehera	Ilargia
1	05:02 eta 17:12	10:54 eta 23:19	○
2	05:35 eta 17:45	11:30 eta 23:53	○
3	06:05 eta 18:17	12:03	○
4	06:33 eta 18:47	00:24 eta 12:36	○
5	07:01 eta 19:17	00:55 eta 13:07	○
6	07:30 eta 19:48	01:25 eta 13:39	○
7	08:00 eta 20:21	01:56 eta 14:11	○
8	08:33 eta 20:58	02:28 eta 14:46	○
9	09:13 eta 21:44	03:04 eta 15:29	○
10	10:08 eta 22:49	03:50 eta 16:27	○
11	11:27	04:55 eta 17:51	○
12	00:21 eta 13:00	06:24 eta 19:23	○
13	01:48 eta 14:14	07:48 eta 20:32	○
14	02:51 eta 15:09	08:49 eta 21:24	○
15	03:39 eta 15:55	09:37 eta 22:08	○
16	04:23 eta 16:37	10:20 eta 22:50	○
17	05:04 eta 17:19	11:01 eta 23:31	○
18	05:44 eta 18:01	11:43	○
19	06:25 eta 18:44	00:12 eta 12:25	○
20	07:07 eta 19:29	00:54 eta 13:09	○
21	07:51 eta 20:15	01:37 eta 13:55	○
22	08:39 eta 21:07	02:23 eta 14:45	○
23	09:34 eta 22:10	03:14 eta 15:43	○
24	10:45 eta 23:36	04:15 eta 16:55	○
25	12:15	05:36 eta 18:28	○
26	01:16 eta 13:41	07:09 eta 19:56	○
27	02:33 eta 14:47	08:23 eta 21:00	○
28	03:26 eta 15:36	09:16 eta 21:45	○
29	04:06 eta 16:15	09:57 eta 22:22	○
30	04:39 eta 16:48	10:33 eta 22:54	○

FARMAZIAK-IRAILA

19, 20 eta 25.	ETXEBERRIA: Gipuzkoa kalea, 17 / 943-83 23 98
21.	ESPARZA: Santuturri plaza, 5-6 / 943-50 47 83
26 eta 27.	GALLO: Zigorria kalea, 17 / 943-13 40 19
22 eta 28.	GARMINDE: Gipuzkoa kalea, 68 / 943-12 40 19
30.	IRIARTE: Zinkunegi, Pilarbo Enea / 943-13 29 70
23 eta 29.	LARRAÑAGA: S. Frantzisko, 16 / 943-13 38 14
24.	REDONDO: Urdaneta kalea, 8 / 943-13 31 83

Iragarkietarako bokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943-83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

AGENDA

URRIA



URRIAK 2 OSTIRALA

Kontzertua: Manez eta kobreak musika taldea.

Arraunetxen, 19:00etan.

Doakoa.



Ipuinak ezagutzen
MIRIAM MENDOZA
ipuin kontalariarekin
3-6 urteko haurrentzat eta gurasoentzat

Azaroak 4 - astelehena - 18:00 - kultur etxeko areto nagusian



URRIAK 5 ASTELEHENA

Ipuin kontalaria: Miriam Mendoza.

Kultur Etxean, 18:00etan.



Puntua jarrita

Olatz Olariaga.
(Doinua: Minberatu zaizkigu)

1

Isurketen ondoren moila hurrez beteta

errauskailutzar horrek
nauka kezkatuta
martxan jarri berria
ta ja isurketa
beldurra ematen du
ondo pentsatuta

2

Neska mutilak dira
jokoaren jabe
zer litzateke moila
bainurikan gabe
txondo, murgil, igeri
zein baino zein hobe
holako txoko ederrik
ez dago debalde

3

Saikolatik hasita
Itzaoko larra
paraje polit hauek
badute indarra
errioan behera
Motondo ederra
denok zaindu dezagun
gure itsasadarra

Hurrengo bertsolaria:

Nerea Lopetegi Azkue.

Puntua:

Kontinente beltzean
pandemia ugari.

Hasi Bertsotan atalean puntuka ariko dira bertsolariak. Oraingoan Olatz Olariagari jarri dio puntua Ekiñe Saizarrek: "Isurketen ondoren moila hurrez beteta". Hurrengoari ere jarri dio puntua.



MIRIAM ARREGI

AEKn, IRAKASLE BATEK BIK BESTE BALIO DU.

Irakasten daki eta ikas
dezazun nahi du.



Janire Urrestarazu Aizpurua, AEK-ko irakaslea.



EUSKARA-IKASTAROAK

Urola Kostako AEK
Matrikula zabalik, irailaren 4tik 22ra

Zarautz · 943 130 175 · zarautz@aek.eus

Azkoitia · 943 151 089 · azkoitia@aek.eus

Zumaia · 943 860 248 · zumaia@aek.eus

Orio · 670 420 025 · orio@aek.eus

Zestoa · 670 420 048 · zestoa@aek.eus